



ttipi-ttapa

Herrietako bestak



BESTA gehigarria / 13



Antonio PEREZ ARREGI | ADAVAN elkarteko kidea

«AMIANTOA TOXIKOA ZELA ORAIN DELA MENDE BAT ETA ERDI BAZEKITEN, BAINA MENDE HONETAN DEBEKATU DUTE»

Lesakako fabrian aritu zenean, amiantoarekin lanean ibili zen narbartearra. Orain, amiantoaren ondorioek kezkatuta, berak eta Nafarroako bertze hainbat lagunek ADAVAN elkartea sortu dute. / 8

TTIPI-TTAPA

SINADURAK



JON BARBERENA IBARRA / 3

AITOR AROTZENA ALBIZU / 3

PELLO APEZETXEA ZUBIRI / 4

MIKEL IHIDOI OLAIZOLA / 4



UTZITAKO ARGAZKIA

Saharako hurrei etxeko ateak zabaldu dizkieten familiekin kontu-kontari / 10



IÑIGO ALZUGARAY

Naroa Elizalde zubietarra hirugarren sanferminetako torneoan / 46



PIERRE EZCURRA

55. Kontrabandisten Lasterketa abuztuaren 26an Saran / 60



ZOKKETA / 72

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Andueza e Iriarte, SL

Instalazio Elektrikoak: Industria, etxebizitzak, komertzioak...

Instalazio automatizatuak eta programatzaileak: Partner zenbakiak 37050 eta 43139

Proiektu elektrikoak. Kolegiatu zenbakia: 3868

Goi mailako kalitate zerbitzuak: MOBOTIX bideozaintza | SONOS musika

Domotikaren abantailak:

Energiaren kostua murriztea zereginak automatizatuz | Segurtasuna hobetzea

Pertsonen bizi kalitatea hobetzen da | Mantenerako zerbitzuen efizientzia hobetzen da

Kontrola eta egiaztapena | Zerbitzuak urrunetik gestionatzeko aukera



fenienergía

Energia sentitzeko bertze modu bat

Dirua aurreztu nahi duzu?

Merkatuaren liberalizazioak aukera ematen dizu energia (elektrizitatea eta gasa) nahi duzunarekin kontratatzeko.

Zure konfiantzazko instalatzailearekin baino hobe, norekin?

Elektrizitate eta Gas Fakturak

aztertzen ditugu dirua aurrezteko helburuarekin, **konpromisorik gabe**





NIRE TXANDA

JON BARBERENA IBARRA

Maitasun eskizofrenikoa

UPNk euskara maite du eta horren erakusle dira: D ereduaren kontrako kanpaina, ingelesaren neurrigabeko hauspotzea D ereduko matrikulazioaren galera eman dadin, «zonalde euskaldunean» egunero eskubideak murriztea, euskaltegiak diru-laguntzarik gabe uztea, euskaraz mintzo diren komunikabideei bizirauteko behar dituzten sosalak ukatzea,

Euskalerrria Irratiari hogeita bost urtez lizentziarik eman ez izatea, ETB3 gure etxeko ttipiei ikusteko eskubidea kentzea, unibertsitatean euskararen presentzia

kasik desagertzeraino murriztea, euskara batuaren eta euskalkien arteko kalapita interesatu bezain ergela sortzea eta euskaldunon «pribilegioak» eta euskararen «inposizioa» ekaineko manifestazioan salatzea. «Nirea zelakoz hil nuen» esaldi iluna datorkit burura zuen maitasun eskizofreniko hau definitzerako orduan. Zuen genozidio kultural hau definitzerako orduan.

**«NIREA ZELAKOZ
HIL NUEN' ESALDI
ILUNA DATORKIT
BURURA»**



EZPALA

AITOR AROTZENA

Errusiar entsalada

Euskal selekzioaren faltan, aritu direnak etxekotzeko ohitura ez dugu galdu aurtengo Munduko futbol txapelketan. Txapeldun suertatu den Frantzian aritu da Antton Griezman, Donostiako Errealean hazitakoa, emaztea Berakoa, aitagarreba lesakarra... Halere, Kroazia tikiari gure antza hartuta, zuri-gorri koadrazoek irabaztea nahi. Ea hurrengoan!

NABARMENTZEKOAK



**ITXASO
ONSALO**
HERRI-KIROLARIA



**JOSETXO
URRUTIA**
HERRI-KIROLARIA

Sasoiko dago aresoarra. Berriki, Nafarroako Arpana Txapelketa irabazi du Leire Astiasaranekin eta Iruñeko sanferminetako aizkora erakustaldian, binaka, bizkorrena izan da Nerea Sorondorekin.

Leitzarrak bi txapel jantzi ditu Iruñeko sanferminetan jokatu diren herri-kirol txapelketetan. Alde batetik, Nafarroako ingude txapelketa irabazi du eta bertetik, Nafarroako harri-jasotze txapelketa.

ATZERA BEGIRA



2008-07-24 · TTIPI-TTAPA · 475 zk.

Aintzane Goñi Lesakako kopilotuarekin

Ikusi, gustatu eta egin. Halaxe sartu zen Aintzane Goñi lesakarra rally munduan. 1997an rally batean atera zen kopilotu gisa, eta duela hamar urte horretan segitzen zuela eta, elkarrizketa egin zion TTIPI-TTAPAK. Etxekoek eta lagunek «erotzat» hartu izan zutela aitortu arren, berak garbi zuen horretan segitu nahi zuela. Garaipenak ere lortuak zituen ordurako: 2001ean Euskal Nafar Rallya irabazi zuen eta «egia bihurtutako amets bat izan zela» azaldu zuen. Asfalto eta lur gainean ibiltzen zen, baina «asfaltoan hobeki moldatzen» zela adierazi zuen: «asfaltoarekin zuzen joan behar da, eta lur gainean inertiarekin jokatu behar da. Gidariak kontrakoa egin behar du, eta niri ez zait hori buruan sartzen».



erran.
Mendialdeko Albiesteak



Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabaló, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi, Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdioko Akelarre elkartea

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€



KOLABORAZIOAK

PELLO APEZETXEA ZUBIRI

Jendarteko gazteak eta adinekoak

Jendartea jende ezberdinez osotzen da, ezberdintasun aunitzeko jendez. Ezberdintasun horiek elkarrekin bizitzeko zenbait zailtasun sortzen dute; baina, baita jendartea aberastu ere.

Ezberdintasun horietako batzuk adinarekin loturik gertatzen dira. Hogei urtekoak eta lauretan hogei urtekoak ez ditu gauzak modu berean ikusten, modu berean sentitzen, modu berean egiten. Gazteak oraina bizi du, batez ere; oraina da bere bizitzaren oinarri nagusia, oraingoak dira bere sufrikarioak, bere gozamenak, bere eginbeharrak.

Eta adinekoak? Honek ere oraina badu, bai, baina desberdina. Oraingoa du hainbat gauzaren oroitzapena eta urteetan zehar bildutako ulertzea; lehen sumatzen ez zuen ahulezia ere bai. Gazteak ez bezalako lehengoa bizi du, lehen ikusia, lehen jasana, lehen egina. Hara bada, jendartea hasmentan eta sasoi onean dagoen jendeak eta

«LEHENGOAZ ETA LEHENGOENGANDIK ZER IKASI AUNITZ DUGU»

urteen joanaz nekez dabilenak osotzen dute. Eta biak dira, modu batera edo bertzer, baliagarriak, biek aberasten dute jendartearen bizimodua. Bien eginak dira estimagarriak, aspaldiko bi edo hiru solairuko etxe zaharrak, eta gaur egungo

solairu bakarrekoak; lehengoan eta gaurkoen naturaren ezagutzak, biak dira errespetagarriak eta lagungarriak, nahiz eta ez izan berdinak; batzuen eta bertzeen sinesteari eta usteari zor zaie begirunea.

Adinekoak aipatzean, adineko izan eta gure artetik desagertutakoak ere gogoratzekoak dira. Gaur egungoak erabiltzen eta probexten dugun hainbat gauza, haiei esker baititugu. Haiek ere gure jendartekidetzat jotzen ahal ditugula iduritzen zait, gure begiz gaur egun ikusten ez baditugu ere. Zerbaitengatik da aspaldi errana, historia bizitzaren maestra dela, zera alegia, lehengoaz eta lehengoengandik aunitz dugula zer ikasi. Edo eta bertze batek idatzi zuenaren arabera, historia egiaren ama dela. Izan ere, errealitatea ahal den gehien eta hobekien ezagutzea hagitz inportantea dugu jendeok. Horretarako, guk egun jakin eta egiten dugunaz gain, lehengoek zekiten eta egindakoak, historiak kontatzen diguna hori da, errealitatearen izaera nolakoa den argitzen digu.

Galdetu beharrean gaude, beharbada, saiatzen ote garen historia hori jakiten, joandakoek egindakoaz ohartzeko eta oroitzeko ote garen. Eta erantzuna ez ote da ezezkoa, hainbatetan ?



MIKEL IHIDOI OLAITZOLA BIDAIZI ELKARTEA

Software librearekin bat

Egunero software libre edo askea darabilten tresna pila inkontzienteki eta gehienetan oharkabean erabiltzen ari gara, besteak beste, mundu mailako Internet sarea osatzen duten zerbitzarien %80a baino gehiagok erabiltzen duten Linux banaketetan, gure mugikorretako Android sistematan zein Googleen beste zerbitzuen oinarrietan, Mozillaren Firefox nabigatzailean, Wikipedian, LibreOfficen, WordPressen, Telegramen, eta abar luze-luze batean.

Zertan oinarritzen den ulertzeko, edozein asmakizun argitaratu eta babesteko izan diren moduei arreta jarri behar diogu. Erdi Aro amaierako Venezian egiten ziren artisautza merkatuetan emandako asmakizunak babestu eta artisautzaileak bultzatzeko, 1450. urtean sortutako legeak izan ziren lehenak, teknika sekretuak plazaratzeko ordainean, epe batez monopolio komertzialaren eskubidea ematen zitzaizkien, estatu arautzaileen zergapean. Mende batzuen buruan, industria iraultzarekin batera lehen patente nazionalak eta ondoren

«BIDAZIN SOFTWARE LIBREKO PROGRAMAK ERABILTZEN DITUGU»

nazioartekoak sortu ziren XIX. mendean hondarrean. Hauetan egile eskubide (ingelesez *Copyright*) bidez araututako obren jabetza intelektualaz gain, jabetza industrialean oinarritutako berrikuntza teknikoak arautu zituzten, zehazki

diseinu industrialak (produktuen kanpoko itxura), eredu erabilgarriak (produktu eta prozedura errepikakorrek) eta marka komertzialak. Honela, gaur egun, multinazionalen mesedetan sektore farmazeutiko eta bioteknologikoei gordetzen dituzte patente gehien. Softwareari dagokionez, XX. mende bukaeran, zenbait enpresek eredu itxi honi jarraikiz software pribatiboak eta lizentzia bidezko erabilpenak sortzen zituzten bitartean, praktika horiek kritikoa ziren zenbait informatikaririk, hauen artean Richard Stallman aitzindariak, 1983. urtean software askeko eredu alternatiboan oinarritutako GNU proiektua eta FSF (Free Software Foundation) ekimenen bidez, mugimendu etiko-filosofikoa sortu eta bultzatu zuten, 1985ean GNU manifestua plazaratuz. Ondorengo urteetan softwarea elkarsortzeko, partekatzeko eta erabiltzeko modu berri horiek arautzeko software libreko lizentziak sortzen joan ziren. Kode irekiko softwarea (ingelesez *open source software*), software librearen alde teknikoa definitzeko erabiltzen dela erran dezakegu.

Bidazi elkartean, taldean eta sarean modu irekian lan egiteko eta libreki harremantzeko modu hori partekatzen dugulako, software librean oinarritutako programa informatikoak erabiltzen ditugu soilik, defendatzen dituzten balio etiko-filosofikoei bat eginez: helburua edozein dela ere, exekutatu ahal izatea; aztertu eta aldatu ahal izatea; kopiatu ahal izatea eta hobetu, eta hobekuntza horiek publiko egin ahal izatea, komunitatearen onurarako.

11 GALDERA LABUR

ELIXABET LEKUBERRIA GAMIO DONAMARIAKO GAZTEA

«Gogoarekin eta esfortzuarekin dena lortzen da»

Nor da Elixabet Lekuberrria?

24 urteko Donamariako ama gazte, erronkazale eta alaia.

Zer zaletasun dituzu?

Ehiza, zaldiak eta txakurrak eta irakurtzea gustatzen zait.

Nondik datorkizu ehizarako afizioa?

Ttikitan osabek eramaten ninduten eta orduz geroztik ahal dudan guztietan joaten naiz. Orkatz jaio arte ia astebururo joaten nintzen baina azken hiru urte hauetan gutti joan naiz. Koxkortzen denean gehiago joanen naiz, nirekin eramane baitut.

Askok ehizaren hoberena gosaria dela diote...

Hoberena ez dakit baina ehizara joan eta gosaldue gabe gelditzea bekatua litzateke.

Ikasketak eta semea, nola uzartu dituzu?

Pazientzia handiarekin... Ama beti laguntzeko prest egon da, ni klasean nengoen bitartean semea berarekin egoten zen. Azterketak ailegatzen zirenean, berriz, semea lokartzean hasen nintzen ikasten. Bi urte gogor izan dira, baina gogoarekin eta esfortzuarekin dena lortzen da.

Besta ere alde batera utzia duzu?

Ederrak egin izan ditut baina orain nahiago dut afari eder bat egin eta mahai inguruan berandu arte egon. Lasaitu egin naizela erran daiteke.

Herrikoetan seguru ez duzula hutsik egiten...

Lehen barraren ondoan tragoak hartuz gustura egoten zen



horietakoa nintzen, etxera erretiratzeko presarik izaten ez zuena. Orain, berriz, haurrentzat dauden ekitaldietara joaten naiz eta iluntzerako etxera.

Zer dute Donamariako bestek bertze herrietakoek ez dutena?

Elkartasuna, heldu eta gazteek sortzen duten giroa. Herri bazkariaren eguna da politena nire ustez, herritarrak elkarrekin ikustea eta guztien artean sortzen duten giroa

ederra da. Halere, azken bizpahiru urteetan ez dut joaterik izan.

Inguruko txokorik politena?

Donamariak txoko polita aunitz ditu, bat aukeratzekotan Txaruta aldeko parajeak.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Familia ongi ikusteak, beraiek zoriontsu badira ni ere bai!

Amets bat?

Momentu hauetan bizitzen ari garen injustizia guztia bukatzea.


GOITI ETA BEHEITI



Matxismoaren izebergak «mesederik ez»

«Agerian dagoena, agerian ez dagoen horrengatik mantentzen da.

Hausnartzeko urperatuko gara?». Hala adierazi dute Plazara Dantzara, Baztango Talde Feminista, Goldatz, Berako Emakume Talde Feministak eta Lesakako Emakume Taldeak eta ondoko irudia kaleratu dute.



UTZITAKO ARGAZKIA



IRAKURLEAK MINTZO

Jaiak eta animaliak

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Dagoeneko bete-betean gaude sartuta udan, eta, ondorioz, baita urtaro beroko jaietan ere. Horrek esan nahi du, garai honetan, animalia mota eta kopuru handi-handiak erabiltzen direla. Hau da, pertsonak erabiltzen dituzte animalia horiek, gizakiek gozatzeko. Arazoa zera da, animaliek ez dutela gozaten, alderantziz, estresatu egiten dira, nekatu, sufritu, tratu txarrak hartzen dituzte, torturak jasan eta heriotza pairatu. Esan eta baieztatu dudana haxe inork zalantzan jartzen baldin badu, gomendatzen diot ikus ditzan Askekintza kolektiboak egin dituen azken bideo eta dokumentalak. Animaliekiko sentiberatasun ñimiño bat duen edozein pertsonak, uste dut frogatu ahalko duela egia dela adierazi dudana.

Egiten diren erabilerak asko eta oso ezberdinak dira, edo orain dela oso gutxi arte behintzat egin dira: entzierroak, zezenketak, bigantxak, burtziketak, izkingileak, sokamuturrak, antzara jokoak, ahate jokoak, idi demak, oilar borrokak, ahari talkak, asto lasterketak, zaldi desfileak (alardeak), pikadoreen zaldia, txerrikumeekin (oilar, basurdekume) eta abarrekin jostaketak, eta bat eta beste. Animalia asko eta asko dira, dohainik, gure gutziengatik! Animalia horiek guztiak beren borondatearen aurka hartzen dute parte jardun horietan, ez nahita. Eta hilik jartzen diren animaliek ez dutela sufritzen diote dibertimendu horien aldekoek. Jakina, hil ondoren ez dute sufritzen, baina horretarako, lehenago

norbaitek erail behar izan ditu. Zer eskubide dugu pertsonok animaliak hiltzeko, soil-soilik gizakiok gozatzeko? Bakar bat ere ez, gizarte demokratiko eta zibilizatu batean!

Pertsonok erabaki nahi dugu zein animalia babestu (katuak, txakurrak, etab.), zein jan (abelgorriak, ardiak, txerriak, oilaskoak, etab.), zein ez jan (sugeak, katuak, txakurrak, etab., gure gizarte honetan), zein hil gure gozamenerako, zeintzuk gaizki tratatu eta torturatu pertsonok entretenitzeko eta abar. Nonbait ahaztu nahi dugu gu geu ere animaliak garela, eta beste animaliek ere, guk bezala gozatu, sufritu, maitatu eta abar egiten dutela. Iruditzen omen zaigu gure espeziea goren mailakoa eta hobereena dela, eta, horrexegatik, eskubidea dugula haiekin egiteko gogoak ematen diguna.

Badakit, bai, animalien aldeko erabaki hauek ezin dituela hartu pertsona bakar batek, ez, baizik eta gizartearen gehiengoak. Eta, halaber, badakit aurrerapausoak egiten ari direla norabide egokian, baina, benetan harritzen nauena zera da, alegia, Euskal Herriko hainbeste pertsonak tratu txarrak eta torturak nozitu ondoren, eta gizartea pertsonetikiko hain sentibilizaturata egonda, zeinen sentiberatasun gutxi erakusten duten animaliekiko, esate baterako, Iruñeko peñek eta abar. Badakit, orobat, pertsonak eta gainerako animaliak ez garela berdinderdinak, bai, baina ezta hain ezberdinak ere sufrimenduari dagokionez.

BOTA BERTSOA

ANDER FUENTES MUJICA
ZUBIETAKO BERTSOLARIA



Oporrak Online

Doinua: Zure koadro bat egin nahi nuen.

*Amsterdameko auzo gorrian
hamaika eskaparate
Tokioko bazter batean dagon
taberna baten ze sake!
Montevideon zein Asuncionen
dastatzeko nahiko mate
Budapesteko zubiak omen
ditu dozena bat kate
Senegaleko hondartza baten
palmera bat da estalpe
mundua nola ez maite?
mugitu gabe ze pake!
gaur interneta nola bihurtu
zaigun mundurako ate
joan gabe ere bazter guztiak
errex deskriba nitzake.*

*la etxeko ditugu booking
Trip advisor ta Trivago
bertan ikasten dugu ze hotel
den hobe ta merkeago
erretratoak ikusi eta
zein ote dugu nahiago?
google maps ere ez dugu txarra
ikusteko garbiago
iritzi batzuk irakurrita
gelditzen naiz lasaiago!
non jan ta non egin trago
noiz joan, noiz egon abaro
dena lotuta izan nahi dugu
joan baino lehenago
baina lehen aldiz ikustearen
zirrara hori non dago?*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58

Urdazubi/Urdaix



Burdin eguna

2018
Abuztuak 11



10:00 - 14:00

Artisautza azoka
Haurrentzako jokuak

12:00

Burdin mineralak kargatuta datozen
idien helduera
Burdina urrezko txanponengatik
trukatzeko ekitaldia

13:15

Hitzaldia, Zentro Kulturalean

Ricardo Santamaría.

TRUEBA enkartazioko dokumentazio eta
zabalkunde zentroko koordinatzailea

“Enkartaziotik Urdaix-era,
burniaren mineralaren ibilbidea”

14:30

Herri bazkaria
“Zikiro jatea” (Mechoui)

16:00

Ekitaldia
BANKAKO MENDITARRAK +
MARIACHI

BABESLEAK

A. Bengochea
Arrechea
Biok
Cuevas de Urdaix
Estación de Servicio Pio XII
Josenea
Joxemi Bengochea
Lanau Goumet

Parque comercial Axular
Restaurante Armua
Restaurante Indianobaita
Restaurante La Koska
Santiago Villares
Venta Juan Félix
Venta Peio



Urdax - Urdazubi
Dantzarinea
ABIERTO A TODOS LOS GUSTOS - GUSTU GUZTERTZAZKO BERRA - OUVERT AUX TOUS GOÛTS
www.urdax-dantzarinea.com



Antonio Perez Arregi narbartearra ADAVAN amiantoaren biktimen elkartearen bultzatzaileetako bat da. G. PIKABEA

«Gaur egun oraindik amiantoa badago eta hori arnasten ari gara»

ANTONIO PEREZ ARREGI ADAVAN ELKARTEKO KIDEA

Lesakako fabrika aritu zenean, amiantoarekin lanean ibili zen. Orain, amiantoaren ondorioez kezkatuta, berak eta Nafarroako bertze hainbat lagunek ADAVAN elkarte sortu dute

G. PIKABEA NARBARTE

«Amiantoa hiltzaile isila da». Halaxe dio Antonio Perez Arregi 67 urteko narbartearrak eta ez da hori dioen bakarra. Datuek ere hala erakusten dute. OME Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, urtean ehun mila lagunetik goiti hiltzen dira amiantoa arnastegatik. Sakanan berean, 2012az geroztik bortz lagun hil dira amiantoaren eraginez. Ondoko urteetan, zerrenda hori hazten joanen dela ohartarazia du OMEk. Izan ere, amiantoaren ondorioak epe luzera sumatzen dira: amiantoaren arrastoak gorputzean sartu eta handik 30 edo 40 bat urtera agertu ohi da gaixotasuna.

Duela mende bat baino gehiago frogatu zuten amiantoarekin lotutako produktuek minbizia eta hiltzeko arrisku haundia sor dezaketela. Baina gerora debekatu zuten: Suedian 1982an debekatu zuten, estatu frantziarrean 1997an eta estatu espainiarrean 2001eko abenduan. Bere ezaugarriak tarteko, batez ere, 60ko eta 80ko hamarkadetan aunitz erabili zuten industrian.

Narbartearra ere amiantoarekin lan egindakoa da. Lesakako fabrika aritu zen 35 urtez, galbanitzatze lerroan, «txapari zink estaldura ematen dion makinan». Urte batzuetan amiantoa erabili zuela kontatu digu.

Amiantoarekin lan egindakoa zara. Azalduko zeniguke?

Amiantoa juntura bezala erabiltzen zen, makinaren labeko ateari paratzeko. Junturari 40

zulo egiten genizkion atearen zuloekin bat egiteko. Amiantoa inongo babes-neurririk gabe erabiltzen genuen; guk ez genuen bere arriskuaren berririk eta fabrika ere ez ziguten lan hori egiteko maskararik ez bertze neurrik hartzeko ere erraten.

Zenbat urtez aritu zinen amiantoarekin lanean?

Hamar bat urtez ariko nintzen. Lan hori egiteko ardura nire postukoari tokatzen zitzaion, baina ez zen egunero egiten genuen lan bat izaten, eta lau txandatan lan egiten genuenez, batzuetan niri eta bertzeetan bertzeei tokatzen zitzaien. Baina bai, aunitzetan manipulatu behar izandu nuen amiantoa. Gerora, postuz al-

Zer da amiantoa?

Amiantoa mikrofibraz osatutako mineral bat da. Ezaugarri isolatzaile, mekaniko eta kimiko onak dituelako, beroarekiko eta garrekiko erresistente ona delako eta material merkea delako aunitz erabilia izan da industrian. Baina manipulatzerakoan, hala nola, makina edo erreminta batekin lantzean edo materiala zaharkitua denean, fibrak askatzen ditu eta arriskutsua bihurtzen da. Fibra horiek arnasterakoan hainbat gaixotasun sor ditzake, bertzeak bertze, biriketako minbizia, pleurako mesotelioma minbizia eta asbestosia (biriketako fibrosia).

datu nintzanean, ez genuen hainbertze erabili, baina erabili genuen eta gaixotzeko guttirik aski da...

Ondoriorik sumatzen duzu?

Ez, orainoz ez. Orain dela urte bat eta erdi, plakak eta espirometria egin zizkidaten eta emaitzak negatiboak izan ziren. Espero dut horrela segitzea, nahiz eta gezurretan ariko nintzatekeen ez nagoela kezkatua erranez gero. Ongi sentitzen naiz eta horregatik ez dut aunitzik pentsatzen. Etorri behar badu, ahalik eta beranduen etor dadila, eta bitartean, egunerokoan bizi naiz. Ezin dut gibelera egin.

Amiantoaren erabileraren zerrندان sartua zaude...

Bai, hala da. Duela bi urte ASVIAMIE amiantoaren biktimekin Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elkarteko kide egin nintzen, eta euren bidez, zerrندان sartu nintzen. Nafarroan, 3.000 bat lagun kontrolatzen gaitu Osasunbideak. Aipatu dudan proba [plakak eta espirometria] zerrندان sartua naizela egin zidaten.

Duela mende bat jakin zen amiantoaren toxikoa zela. Nola da posible arriskuak ez ohartzeara?

Bai, hala da. Orain dela mendi eta erdi bazekiten amiantoaren toxikoa zela eta zein ziren bere ondorioak. Ni 1975ean hasi nintzen Lesakako fabrika eta ez ziguten arazo honen inguruan deus ere erran. Are gehiago, amiantoaren mende honetan debekatu dute. Zergatik ez zuten lehenagotik egin? Hor-

«DUELA MENDE BAT JAKIN ZEN TOXIKOA ZELA ETA 2001EAN DEBEKATU ZUTEN»

«AMIANTOAREKIN LOTUTAKO AUZI GEHIAGO IZANEN DIRELA USTE DUT»

txe dago gakoa. Amiantoaren siderurgian, trenbideetan eta eraikuntzan aunitz erabili izan da. Gaur egun, etxebizitzetan eraikinetan, ixtegiak eta estalpeetan ere ikusten da. Estalkiek uralita dute eta hori ere amianto da. Gauza jakina da denborarekin hondatu egiten dela, eta ingurugiroan gelditzen dela. Gu, berriz, hori arnasten ari gara. Gehiago ere bai, duela gutti haurrentako makillaje-kit bat ere kendu dute merkatutik, amiantoaren zuelako. Badirudi ez garelako ohartzeko zer dugun inguruan.

Administrazioak gehiago egin beharko lukeela uste duzu?

Bai, dudarik gabe. Nafarroako Gobernuak aurten 100.000 euroko partida onartu du amiantoaren kentzeko. Ez dakit nahikoa den ala ez, baina hortik aparte, kaltetuen zerrندان gaudenoi mediku-azterketak egiten dizkigute. Zorritarrez, zerrندا hori gero eta gehiago haziko da eta osasungintzan itxarote-zerrندekin gertatzen dena ikusita, espero dugu azterketak urtero edo bi urtetik behin egitea eta ez bortz urtean behin egiten hastea. Horrez gain, ASVIAMIE eta ADAVANek eskatzen duten kalte-ordainen funtsaren gaian ere gehiago inplikatu beharko lukete.

Azken aldirian kaltetuen aldeko sententziak izan dira. Holako gehiago espero dituzue?

Kaltetuen aldeko sententzien artean, azkenek ekainean ateratu zuten. Horren arabera, amiantoaren ondorioz hil zen altsasuar baten familiari 121.900 euro ordaindu beharko dizkio enpresak. Hala ere, bada bertze kasu berezi bat, emakumezko batena. Amiantoarekin lan egiten zuen senarraren arropak garbitzeagatik gaixotu eta hil egin zen. Familiak kasua epaitegietara eraman eta sententzia euren aldekoa izan da. Hortaz, auzi gehiago izan direla uste dut.

Aurten ADAVAN elkartearen sortu duzue. Zergatik?

Amiantoaren eraginez sortutako gaixotasunak handitu



ADAVAN elkarteko kideetako batzuk, tartean narbartearra. UTZITAKOA

Biktimei laguntzeko elkartearen

Amiantoarekin lan egiteak dituen ondorioekin kezkatuta, ADAVAN elkartearen sortu dute Nafarroako amiantoaren biktimek. Elkartearen bultzatzaileak Lesakako ArcelorMittal, Altsasuko Sunsundegui eta Tafallako Luzuriaga enpresetako langile ohiak dira eta amiantoarekin lan egin duten Nafarroako biktimei eta haien familiei laguntzeko elkarte dira.

Tartean da Antonio Perez narbartearra eta amiantoarekin kontaktua izan duten guztiak elkartearen sartzera animatu nahi izan ditu. Interesatuak adavan2018@gmail.com helbidera idatz dezakete edo 661 129440 telefonora deitu. Urtean 20 euroko kuota ordaindu behar da.

egin dira eta arduratuta gaudelako. Biktimei eta haien familiei informazioa eman eta aholkuak emateko elkarte bat osatzea beharrezkoa ikusi dugu, jakin dezaten zer egin behar duten lan-gaixotasun gisa aitortzeko, eta hala tokatuz gero, diru-laguntzak jasotzeko. Hasiera batean, ADAVAN sortu dugun guztion asmoa ASVIAMIEren barne egotea zen, baina arazo burokratikoak tarteko ezinezkoa izan da. **ADAVANek, bertzeak bertze, gaixoak aitortuak izatea eta berehala kalte-ordainak jasotzea eskatzen du. Zehaztuko zenuke?** Amiantoarekin lanean aritu garenoi mediku-azterketa berezitu gehiago egitea eskatzen dugu, baita osasuna babesteko neurri gehiago hartzea ere. Horrekin batera, amiantoarekin aritu dena laneko gaixotasun gisa hartu izatea nahi dugu eta amiantoarekin zerkusia duten gaixotasunekin erregistro bat sortzea. Gisa

berean, amiantoarekin aritu diren eta oraindik lanean ari direnak aurretiko erretiroa hartu ahal izateko beharrezkoa den legedia onartzea garrantzitsua iruditzen dugu. Bertzelalde, amiantoaren tokia identifikatu eta inbentarioa egin beharko litzatekeela uste dugu eta behin hori eginda, toki horietatik amiantoaren kendu beharko litzatekeela. Espainiako Gobernuari, berriz, biktimentzat kalte-ordainen funtsa sortzea eskatzen diogu. Gai horiek guztiak elkarrekin lantzeko garrantzitsua da elkartearen egotea.

Kaltetuentzako konpentsazio-funtsa aipatu duzu. Hori da soluzioa?

Kaltearen egin dago, baina badira amiantoaren erabileraren ondorioz ez diren enpresak. Enpresa horietan lanean aritu zirenek eta kaltetuak direnek kalte-ordainak jasotzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu.

Saharar herriari elkartasun keinua

Bertze urte batez, Maria Luisa Mihura elizondoarrak, Jabier Barandiaran leitzarrak eta Nerea Iturriria erratzuarrak Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren Saharako haurrei beraien etxeko atepak zabaldu dizkiete eta beraien esperientzia kontatu diote TTIPI-TTAPARI

G. PIKABEA

Desertuan bizi dira, Aljeriako Tinduf eskualdean dagoen errefuxiatuen kanpalekuetan, baldintza kaskarretan, eta hein haundi batean Europatik helduzaien laguntzari esker. Udan, ordea, Oporrak Bakean programari esker, kanpalekuetatik atera eta bi hilabetez baldintza egokietan bizitzeko aukera izaten dute harrera familietan. Gisa honetara, osasun azterketak egiteaz gain, elikadura egokia jaso eta udan izaten duten 50 gradutik goitiko tenperatura saihesten dute.

Azken urteotan, harrera familien kopuruak beheiti egin du. Hori izan zen, iaz Bakelekua sortzearen arrazoietako bat. Elizondoko Lanbide Eskola haurrak hartzeko moldatu eta hogeitaharrek aterpea izan zuten udan. Aurten, ordea, ezin izan dute antolatu. Hala ere, Baztan-Bidasoko Saharatan eta Leitzako saharar herriarekiko elkartasun taldeei esker, errefuxiatu guñeetako hamar haur saharar eskualdean dira. Ekainaren 26an ailegatu ziren eta abuztuaren 25a arte hemen izanen dira. Leitzan, Elizondon eta Beran bina haur hartu dituzte eta Erratzun, Arizkunen eta Donezteben bana. Horrez gain, iaztik, osasun arreta jasotzeko bertze haur bat Elizondon dago.

Saharatik Baztan eta Leitzara

Maria Luisa Mihura Sanzberrok (Lekaroz, Elizondo) Saharako bi haur hartu ditu aurten etxean, eta ez du zalantzarik: «merezki du eta gustura egiten dut. Guretako ere arras poz-

garria da». Ez da atzo hasia, dagoeneko 17 bat urte baititu Saharako haurrak hartzen.

Jabier Barandiaran Ormazabalak (Leitza) ere badu esperientzia, «orain dela hamar bat urte» hasi baitziren Saharako haurrak ekartzen, batetik,

«saharar herriaren arazoarekin elkartasun modura» eta bertetik, «neska-mutikoei beste bizi bat egiten laguntzeko».

Bi urtez Bakelekutik saharar haurrak asteburu pasa etxera ekarri ondotik, iaz, lanean eszedentzia hartu zuela probe-



Mulay bigarren aldiz etorri da aurten Erratzura. UTZITAKO ARGAZKIA

AZKEN URTEOTAN BEHEITI EGIN DU HARRERA FAMILIEN KOPURUAK

«BIZI BEHARREAN, IRAUN EGITEN DUTE»

JABIER BARANDIARAN, LEITZA

txatuz eta «saharar haur bat ekartzeko gogoan uenez, lehenbizikoz uda osorako haur bat hartzea» erabaki zuen Nerea Iturriria Meokik (Erratzu). «Arras ongi» atera zen eta aurten errepikatzea erabaki du: «lanean nago, baina iazko haurra etor daitekeen azken urtea denez, pena ematen zidan ez ekartzeak. Bikotekidea herrian ari da lanean eta haurrak herria ezagutzen zuenez eta ongi moldatzen denez, ekartzea erabaki dugu». Hailere, «bertze bat ekarri behar ko banu, akaso ez nukeen ekarriko» onartu digu. «Lanean ari naiz eta hasieran pixka bat gainean egon behar da».

Sahararren enbaxadoreak

Barandiaranek ezaguna du errefuxiatuen gunea: «bi alditan izan gara eta seme-alabak beste bi txandatan». Hura ikusita «pena eta lotsa» sentitu izan dituela aitortu digu: «bizi beharrean, iraun egiten dute. Oso baldintza gogorretan bizi dira». Iturririak bezala, Mihurak ere bertzeek kontatuta daki zein den egoera. «Alaba bere bikotekidearekin Saharara joan zen eta agudo ikusi zuen zer behar zegoen», dio elizondoarrak. «Han ez dute deus ere, legarra bertzerik ez. Ez dute etxerik, haima edo txaboletan bizi dira». Haimetan «bero haundia» pasatzen dutela eta «legarrekin txabola batzuk goratzen» dituztela erran digu. «Ia ez du euririk egiten, eta egiten duenean, putzu haundiak eta lohia sortzen da eta dena erortzen zaie».

Leitzarrak «egoera horretan, jada 30 urtetik gora dituztela» salatu du. Gaineratu duenez, «Europara ateratzen diren haurrak saharar herriaren enbaxadoreak direla esaten dute. Jendeak ikusten dituen, badaki nola bizi diren eta horrek jendea iruditzen zait».

Lehenbiziko aldia

Mihurak eta Barandiaranek gogoan dute sahararrak etxean

hartu zituzten lehenbiziko aldia. Leitzarrak lehenbiziko haurra «bitxoia baina pertsona ona» zela kontatu digu. Mihurak «gogor samarra» egin zitzaioala onartu badu ere, ez da damutu hartutako erabakiaz. Hasi baziren hasi, dagoeneko sei haur hartu ditu baztandarrek etxean eta zortzi leitzarrak. Gehiago ere bai, «etxean izan ditugun haurrekin, urte osoan harremana mantentzen dugu» eta guztiei laguntza bidaltzen diete. Iturriria ere urte osoan harremanetan egon da Mulayren familiarekin eta Eguberrietan laguntza bidali zien.

Euskaraz ere ederki

Hirurek bat egin dute sahararrek «eraz» egokitzen direla erraterakoan. Hasieran «nekatuak eta urduri» ailegatzten direla diote, baina «segituan» jartzen omen dira. Erratzuarrak ez du atzendua Mulay etxera ailegatu zen eguna: «lehortua ailegatu zen. Etorri zen lehenbiziko egunean, Erratzuko bestak ziren eta negar egiteko gogoarekin ikusten nuen. Ez zen solasten, ez zuen jaten... Baina biharamunean, haurren bazkaria izan genuen, eta bertze pertsona bat zirudien. Eraz egin zituen lagunak».

Euskara ere ez omen da oztopo izaten: «nahiz eta erdaraz nahiago duten, euskaraz ulertzen dute eta gurean gehien egon direnek euskaraz ongi solas egiten dute», erran digu Mihurak. Barandiaranen hitzetan, «normalean erdara pixka bat ikasita etortzen dira baina bi hilabetez oso ongi ulertzen dute euskaraz eta ez dute arazorik izaten».

Bertze kultura izateak ere ez die arazorik sortu: «badira egiten eta jaten ez dituzten ohiturak eta jatekoak eta ga-

rrantzitsua da hasieran konfidantza ematea, ziria sartu gabe», aipatu digu Barandiaranek. Iturririak gogoan du, «hasieran errezatu» egiten zuela: «kanpoan jostetan ari zela, etxera etorri eta errezatzen hasten zen. Baina gerora lasaiago hartu zuen».

Anekdotak ere badituzte. «Igeriketan, bizikletan... dena badakitela erraten dute. Bizikleta hartu eta hemengoek bezala ibili nahi dute, baina ez dute esperientziarik eta alde horretatik nahiko arriskutsuak dira». Barandiaranek gaineratu digunez, «hango mentalidadearekin etortzen dira. Ez daude hemengo trafikora jarriak, han ez dago espaloirik, ez eskailerarik ere eta hasieran, batzuk beldurra sentitzen dute. Bizikletarekin eskuinetik joateko esan behar izaten diegu behin eta berriz... Badakite arau batzuk badirela, baina akordatzten direnean egiten dituzte». Bat dator horrekin Mihura: «bi aldiz pentsatu gabe egiten dituzte gauzak eta erne ibili behar da».

Iturririak gertatu zitzaiona kontatu digu: «joan den urtean, haurra ekarri nahi nuela deitu nuelarik, ANAS Sahararren Lagunen Nafarroako Elkarte-ko arduradunak aitzineko urtean, harrera familiak Mulay hamar egunen buruan itzuli zuela adierazi zidan. Arras mugitua zela, eskailerak azkar igotzen zituela, denei tinbrea jotzen ziela... Bai, mugituak dira, urduriak. Baina nik ez nuen arazorik izan, herrian ederki egokitu zen eta adinekoak liluratuta uzten zituen».

Esperientzia «aberasgarria»

Esperientzian oinarrituta, saharar haurrak etxean hartzera animatu nahi izan dute

«EMATEN DIEGUNA BAINO GEHIAGO EMATEN DUTE»

MARIA LUISA MIHURA, ELIZONDO

«ESPERIENTZIA ABERASGARRIA DA»

NEREA ITURRIRIA, ERRATZU



Jabier Barandiaran erdian, familiaren eta Mahyub Sarako bisitariarekin.



Mulay aurten bigarren aldiz etorri da Nerea Iturririaren etxera.



Mihuraren bilobak bi bazterretan eta erdian etxean hartu duen sahararretako bat.

jendea. Iturririak onartu du «aunitzetan zaila» dela: «lanean gauden bitartean norekin utzi?». Horregatikuste du «akaso bertze aukerak planteatu beharko lirakekeela. Uztailean nonbait egon eta asteburuetan eta abuztuan atera...». Baina esperientzia «arras aberasgarria» dela nabarmendu du.

Barandiaranek ere argi du: «oso esperientzia positiboa eta polita da». Haurrek hemen egiten duten egonaldia «ga-

rrantzitsua» delakoan dago eta bide batez, «Europari buruz daukaten erreferentzia oso mitifikatua dutenez, hona etorri eta hemen jende normala garela ikusten dute. Denontzat garrantzitsua da gure mundutxotik aparte zer dagoen ezagutu eta errealitatea zein den ikustea». Mihurak ere kontent hartzen ditu sahararrek. Gehiago ere aitortu digu: «ematen dieguna baino aise gehiago ematen dute».

Gerrako 'ahantziek' botako dute bestetako txupinazoa

Zahar Etxean bizi den Francisco Perez Lusarreta, II. Munduko Gerran nazien kontra borrokatu zuen gudaria, gonbidatu dute

TTIPI-TTAPA

Udalak memoria historikoa- rekin erakutsitako konpromisoa argia izan da eta hainbat ekitaldi antolatu ditu.

Memoriaren ildotik jarraituz bestetako altxaferoa herriko 'Ahantziek' botako dute. 1936ko uztailaren 21ean hartu zuten herria erreketeta eta matxinatu faxistek, izua eta heriotza nonahi zabalduz. Ordurako, altxamendu frankistarekin bat egin ez zuten hainbat herritar eta karabine- rok herritik ihes egin eta Gipuzkoan eta Iparraldean hartu zuten babes. Abuztuaren 3an, San Esteban egunez, hain zuzen ere, ihes egindako horien emazte, haur eta senideak Herriko Etxeko plazan bildu zituzten. Laurogeita bi urte beteko dira aurtan. Erreketean mezua argia zen: «A Gipuzkoa, a Francia o a fusilar». Ehun familia inguru bidali zituzten herritik eta horietako guti batzuk itzuli ziren.

Ekintza honen bidez, Udalak ahantzuratik atera nahi ditu errepresaliatu beratar haiek, fusilatuak izan zirenak eta

gerran askatasunaren alde borrokan bizitza galdu zuten herritarrak. Egia, justizia eta erreparazioa bilatu nahi ditu, hamarkadetan isilarazitako sufrimendua eta oinazea sendatzeko eta gertatu zen hura berriro ez gertatzeko.

Txupinazoa

Errepresaliatu haiek eta beraien senide eta ondorengoak, herriko beste hasiera emanen dion altxaferoaren botatze ekitaldira gonbidatu eta animatu nahi ditu Udalak. 11:30ean elkartuko dira Herriko Etxean bertan. Etortzeko asmorik izanez gero, telefono honetara deituz baieztatu behar da: 948 630005.

Ekitaldi honetan Zahar Etxean bizi den ohorezko gonbidatu bat ere izanen dute: 96 urteko Francisco Perez Lusarreta, II. Mundu Gerran nazien kontra borrokatu zuen Gernika Batailoiko gudaria.

Abuztuaren 2ko omenaldi horrek segida izanen du azaroaren 18an egingen den ekitaldi instituzionalarekin: *Ahantzien oroimenez 1936-1939*.

Autodefentsa ikastaroa larunbatean

Autodefentsa ikastaroa antolatu du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Berdintasun Institutuak lagunduta. Uztailaren 28an egingen dute, larunbatean 10:00etatik 14:00etara Beralandetan. Izen-ematea ortziraleara bitarte (948 635036).

'7 begirada' erakusketa ikusgai Kultur Etxean

Jokin Arman, Josu Goia, Ignacio Larra, Iciar Mikelperizena, Trini Mikelarena, Juan Carlos Olaetxea eta Oaia Peruarena herriko artisten 7 *begirada* erakusketa ikusgai izanen da uztailaren 27tik abuztuaren 19ra Kultur Etxean. Ortziralearn 19:00etan irekiko dute.

Oier Mitxelena Nafarroako trialsin txapelkun berriz

Oier Mitxelena Arozena, 17 urteko txirrindulariak Nafarroako trialsin txapelketa irabazi zuen uztailaren 7an Lizarragan. Joan den asteburu honetan, Espainiako txapelketan aritzekoa zen.



UTZITAKO ARGAZKIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Toki Onako ikasleen horma-irudiak

Toki Ona institutuko ikasle batzuek, eta ikasle ohi batek, arte hezkuntzako irakaslearekin batera, ikasturteko azken egunetan borondatez etorri eta horma-irudi batzuk margotu zituzten. Institutuko eremu batzuetan gustura eta gogotsu ibili ziren elkarlanean eta ederrak gelditu dira.

Asier Gogortzaren erakusketa ikusgai dago Larungo Kaiolako kultur kabian

TTIPI-TTAPA

Larungo Kaiola ostatuak kulturari atea zabaltzeko nahi ditzio eta Kabia kultur espazioaren atea zabaltzeko nahi ditzio. Uztailaren 22an, Asier Gogortza argazkilaria erakusketarekin eta Ekiza musikariaren kontzertuarekin. Erakusketa

uda guztian egonen da zabalik.

Aurrerantzean kultur adierazpenak sustatzea izanen da Kabia kultur espazioaren helburua, mugaren bi aldeetara egiten denaren leiho izan eta turismoari ostatu bat baino zerbait gehiago eskaintzeko.



I D O I A

**BESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

PERFUMERIASIDOIA.COM



Jorge Sopena Colombero
ODONTOLOGO
Colegiado 223
Itzea, 1-1º 31780 BERA
T. 948 63 06 47

ongi pasa bestak!

ilaiax
ileapaindegia
T948 63 14 27

ONGI PASA BESTAK!

ERREKALDE
OSTATUA
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATXAK

Abuztuak
2,3 eta 4
GAUEZ IREKIA!
kubata bereziak
Gau giroa

Tfnoa: 948 630 259
BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ongi pasa bestak!



Frutas
de Verduras
BRANDONEA, S.L.
FRUTAS EBA BARAZKIAK

BILTEGIA:
948 630 102
SAKELAKOA:
633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA



mendi mendian

ongi pasa bestak!!!
JATETXEA • DENDA • OSTATUA




IBARDIN | BERA | NAFARROA | (0034) 948 630 723
mendimendian@hotmail.com | www.mendimendian.com

CARROCERIAS
ALZATE

TXAPA eta PINTURA

Alkaiaga ind. Alasta, 4 • Tel: 948 630 373 • BERA

ONGI PASA BESTAK!

ETXERA
ERAMATEKO
ZERBITZUA
URTE OSOAN



okaNe

**HARATEGIA
URDAITEGIA**
Enaut & Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
T. / F.: 948 630 018

MENDIKO
SAGAROTEGIA • ERRETEGIA • JATETXEA





T. (0034) 948 63 03 02
(0034) 699 81 08 70
Ibardingoa gaina • BERA • Nafarroa
www.mendikoibardin.com

ETORRI IBARDIN ERA
BERAKO BESTAK
GUREKIN OSPATZERA
BAZKARIA + AUTOBUSA + DJa



ONGI PASA BESTAK

elika
Dietetika eta elikadura

IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Itzea, 6 behe 31780 BERA
t. 948 631 283 | 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com



IREKI
LEIHOAK

Aluminio R.P.T / PVC | Pertsianak | Toldoak
Itxidurak | Kontraleihoak | Barandak | Berandak
ONGI PASA BESTAK!

T. 948 630962 F. 948 625400 H. 31780 BERA
irekileihoak@irekileihoak.com • www.irekileihoak.com



GANIX
Tallerra



948 63 06 69

ongi pasa bestak!

Zalain Pol., 11 • BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

BERA KO BESTAK

**BESTA
AITZINETIK**

**Abuztuaren
2tik 6ra**

ERAKUSKETA: 7 begirada

UZTAILAREN 27tik ABUZTUAREN 19ra

Artista parte-hartzaileak: Jokin Arman, Josu Goia, Ignacio Larra, Iciar Mikelperizena, Trini Miquelarena, Juan Carlos Olaetxea eta Oaia Peruarena
Asteartetik igandera (asteleheneretan ITXIA): 10:00 – 14:00 | 15:00 – 18:00.
Igande eta besta egunetan goizez bakarrik irekia. Abuztuaren 3an: ITXIA.
Berako Kultur etxean. Irekiera uztailearen 27an, ortziralea, 19:00etan.

UZTAILAK 28, larunbata

15:00 4x4 autoen ikuskizuna Postan. Antolatzailea: Boma4x4. **16:00** 3x3 Kuadrillen arteko Saskibaloitxapelketa kiroldegi aitzinean (izena emateko 15:00etatik aitzinera) (eguraldi txarra eginez gero Toki-Ona kiroldegian). Antolatzailea: Toki Ona Saskibaloia. Taldeek 3-4 lagunez osatuak egon behar dute. Gutieneko adina: 16 urte. **16:30** Plater tiroa minifoso modalitatean. Bera eta kanpotik etorritako tiratzaileen txapelketa. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea.



UZTAILAK 29, igandea

11:00 Txirrindularitza Proba. Berako X. Saria. Kadeteak. Antolatzailea: Gure Txokoa Elkartea. Luzera: 44 km. Irteera: 11:00 Bidasoa karrika. Helmuga: 12:00 (g.g.b.) Bidasoa karrikan. **16:00** 3x3 Saskibaloitxapelketa kiroldegi aitzinean (euria eginez gero Toki-Ona kiroldegian), (izena emateko 15:00etatik aitzinera). Antolatzailea: Toki Ona Saskibaloitxaldea (gutieneko adina: 16 urte). **19:00** Herri kirol jaialdia kiroldegi aitzinean (euria eginez gero, Eztegar pilotalekuan). Antolatzailea: Nafarroako Herri Kirol Federazioa. Probak: koskor biltzea, aizkora eta harri-jasotzaileak.

ABUZTUAK 1, asteazkena

13:00 San Jose Zahar etxeko familia bazkaria. **21:00** Dantza jaialdia Eztegar pilotalekuan. Antolatzailea: Gure Txokoa Elkartea. **22:30** IV. Berako Gau krosa. Luzera: 7,3 km. Desnibela: 300 m positiboak. Antolatzailea: Manttale Mendi Lasterketa Taldea Laguntzailea: Berako Udala. Argibideak eta izen-ematea: www.manttale.com.



GORA SAN ESTEBAN!
borzburudi
INPRENTA - HOPISTEGIA
948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

ARTIEDA ESTANKOAK
Estanco Nº 3
Cava de Puros
ongi pasa bestak!
Plaza Ururu 1, bajo (Aguerra)
31780 Bera
Tel. 948 631 637
Fax. 948 631 654
estanco3@estanco3.e.telefonica.net

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA
ZURGIN LANAK OROKORREAN
ONGI PASA BESTAK!
T./F. 948 631 430 • M. 607 890 923
Zalain ind. 7 • BERA

JOSE I. GONZALEZ ENGUIA
Pintura orokorrean
Barrualdeak eta fatxadak
T. 666 235 466

ERROTAR HARATEGIA
ONGI PASA BESTAK
Bertako produktuak
Eztegara, 3 - BERA | T. 948 63 04 39
errotazar.harategia@gmail.com

SEGUROS BILBAO Ongi pasa bestak!
Grupo **CATALANA OCCIDENTE**
ie Iriarte-Etxandi
artekaritza-aholkularitza
Kanttonberri, 1 • BERA • 948 631 169 • Faxa: 948 630 385

ANSONEA OSTATUA
Pintxoak | Errazioak | Bokatak
Pizzak | Plater konbinatuak
Karta
ETXERA ERANATEKO JAMARIA
PRESTATZEN DUGU
Ongi pasa bestak!
Bertan egindako *pastel eta tartak*
ENKARGOAK HARTZEN DITUGU
T. 948 62 52 74 Foruen plaza, 1 • BERA



*Inportazioko
bakiak, gazitua,
gezatua eta kongelatua*



Gora San Esteban!

Alkaiaga Ind. • Lesaka • T. 948 631 536 • F. 948 631 550

arropa-denda | etxeko osagarriak | lenteria

Ardura
gazte eta helduentzako

Ongi pasa bestak!

Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136



Hotel Churrut
HOTEL

Churrut hoteleko
jatetxea (LENKONEA)

Foruen plaza | BERA
T. 948 625 540 • T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

BERAKO BESTETAKO MENUA

LABIAGA entsalada
(ganboiak, txipiroiak eta shii-take onddoa).
XUBI XABAL bolobana
(mariskoa), tipulin eta perrexil-emultsioarekin.
SAN MIGUEL legatza
barabxuri fresko-saltsa finarekin eta barazki-broxtetarekin.
ALKAIAGA idi-zatia
ardo beltzaren erredukzioarekin
CHURRUT gazta-tarta mangoarekin,
arrendolazko teilarekin eta mandarina-txupittoa cavarekin.
ARDOAK, KAFAA ETA BEZ BARNE.

PREZIOA: 33 €

**LARRETKEA
EGYRRAK**

Zuhaitzak
erosi, bota
eta ateri



Piketeak eta
sutarako egurra

Ongi pasa bestak!!

Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427

caveo

Funvera Plant

ongi pasa
bestak!

Bidasoa, 84 • BERA
Tel.: (+34) 948 62 50 20
Fax: (+34) 948 63 10 01
www.caveoautomotive.com



JATETXEA - OSTATUA

Egunero 09:30etik aitzinera irekita

Bertan jan edo etxera eramateko...

- Pintxoak
- Errazioak
- Plater konbinatuak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak
- Oilasko erreak
- Su motelean erretako bildotsa
- Urdaiazpiko Iberikoa labanaz moztua

Ilekueta, 11 | BERA | Enkarguak hartzen ditugu • T. 948 631 509



ONGI PASA BESTAK!



EGITARAUA

ABUZTUAK 2, ortzeguna

12:00 2017ko San Esteban beste hasiera emateko herriko etxetik altxaferoa botako da eta ezkil-jotzea izanen da. Aldi berean, tti kiendako gozokiak eskainiko dira. **Ondotik** Erraldoiak eta buruhandiak karrikaz karrika ibiliko dira, Incansables Txarangak eta Ezpelur gaiteroek lagunduta. **17:00** Ezpelur gaiteroek San Jose zahar-etxean joko dute. **18:00** Herri-poteoa Errekalde ostatutik hasita. **19:00** Berako txistularien kalejira. Illekuetatik herriko plazara. **19:00** Kontzertua Altzateko plazan Petit Fantome taldearekin. **21:00** Dantza herrikoiak Altzateko karrikan (fandangoa, arin-arina, larrain dantza...) Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **00:00** Kontzertua Altzateko plazan: Azken trena eta Tokan 2 La Polla. **Egunean zehar**, Incansables Txaranga ariko da karrikaz karrika.



ABUZTUAK 3, ortziralea

09:30 Herriko txistulariek argisoinua joko dute; Ezpelur gaiteroek herrian barna joko dute. **10:30** Udal ordezkariak, txistulariak, makil dantzariak eta Berako bandera aitzinean dutela, Herriko etxetik San Esteban elizara abiatuko dira, Esteban Donearen ohoretan eta Berako abesbatzak lagundurik emanen den Meza Nagusia aditzera. Meza ondotik, Gure Txokoa Dantza Taldeko kideek Berako Makil-dantzak eta Bordon-dantza dantzatuko dituzte txistularien laguntzaz. Gero Uxue Alberdi eta Ander Fuentes *Itturri* bertsolariek kantatuko dute. **13:00** Ezpelur gaiteroak Ibardinen ibiliko dira. **17:00** Incansables Txarangak San Jose zahar etxean joko du. **18:00** Gure Txokoa Dantza Taldeak Berako Aurrekua dantzatuko du herriko etxeko plazan txistularien laguntzaz. Gero Berako Bandaren kontzertua herriko etxeko plazan. **20:00** ETXERA! Elkertasun kalejira Mukixutik Altzateko plazara. **21:00** Dantza herrikoiak Altzateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **00:00** Su artifizialak Matzada futbol zelaitik Zaragozana pirotekniaren eskutik. **00:15** Kontzertua Altzateko plazan Txamukos Taldearekin. **Egun osoan zehar** Incansables Txaranga karrikaz karrika ibiliko da.

bai
SEXISMORIK GABEKO BESTAKI!

Itsasoa hurbilago!
amaleun
ARRAINDEGIA

948 630 981 • 620 828 757 • Itzea, 6 • BERA

JauZena
ONGI PASA BESTAKO!

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

SMAZIZIOR
edariak

T./F. 948 631 557
Helbidea Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA

Xulufraia

ONGI
pasa
herriko
bestak!!

ERAKUME ARROPA
OSAGARRIAK
DEKORAZIOA

Erasa
sexistarik
ez!!

Altzate 18, Bera
T. 948 631 266

VENTA GORRA

VENTA GORRA
RESTAURANTE
LIBRE SERVICE

OSTATUA - JATETXEA
Menu | Karta
KAFETEGIA · OROIGARRIAK
AUTOZERBITZUA
Besta zoriontsuak igaro!

Ibardingo gaina | BERA
Tel.: 0034 948630729

K
AROZTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA

ongi pasa bestak!

Alkaiaga Ind. Elutxa 1 · 31789 LESAKA
T./F. 948 631 651
info@kortanaiak.com

KORTA ANAIAK

MARITX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

ongi pasa bestak!

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA

ZUBIONDO
JATETXEA - SAGARDOTEGIA

GARRAIO ZERBITZUA
ESKAINTZEN DUGU

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA

zubiondojatetxea.com

Pizzio

tabako-denda 2. zbk

ongi pasa bestak!

Altzate, 26 · Tel. 948 630 788 · 31780 Bera

MEKANIZATUAK

ongi pasa bestak!

Zalain Ind., 9 · BERA
T./F. 948 63 11 67

Ubela


xuga

BESTETAKO MENUA 28€ (Edariak eta kafea barne)

HASIERAKOAK MAHAI ERDIAN
Urdaiazpiko iberikoa
Foie ogi xigortu eta sagarrarekin
Gula eta ganba entsalada
Onddoz betetako piperrak

AUKERATZEKO
Zapoa olio erre eta barazkitxoekin
Bakailaoa saltsa berdean piperrekin
Txipiroiak plantan panadera patatekin
Entrekota plantan patata eta pikillo piperrekin
Aratxe-masailak saltsan patata-purearekin
Ahate-bularkia Porto saltsarekin

POSTREAK
Tiramisu-tarta
Bizkotxo kremarekin
Txokolate coulant-a banilla-izozkiarekin
Jogurt-krema
Gazta, irasagarra eta intxaurrekin

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | 

ABUZTUAK 4, larunbata

KAXUELAK
PATATA BRABAK

ONGI PASA BESTAKI!



948 610 708 LEITZA

EXPLOTACIONES FORESTALES
ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.



Oihan aprobetxamenduak
Bertako eta kanpoko zur-biltegia
Egurra aireko kable bidez ateratzen dugu
Oihanberritze lanak
Zur-salmenta, eskabazioak, garraioa

Landa Ind. I eta II · LEITZA
Tfnoa: 948 510 214 · Faxa: 948 510 841
M: 606 949 130 - 606 949 131
info@zubillagasaralegui.es


FERRETERIA - PENTSUAK

ORTIZ *Ongi pasa bestaki!*



Baserriko gaiak
Tresnak
Haziak
Sagardoak
Baratza
Ardoak
Kontserbak
Pentsuak
Eraikuntzarako gaiak

ortizpentsuak@gmail.com
Landa industrialdea 13
31880 Leitza - Nafarroa
T. 948 513 600
www.ortizferreteriapentsuak.blogspot.com.es

Allianz 
ELKARLAN aseguroak

- Autoak, etxeak, komertzioak, R.C, bizi eta baja aseguroak
- Pentsio planak
- Aurrezteko planak
- Kotxe transferentziak

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe!

ONGI PASA PESTAKI!!

Elgoien, 53 · LEITZA
Tel./Faxe: 948 510 490
jaione.alduntzin@allianzmed.es

ONGI PASA BESTAKI

Clinica Dental
IRURITA RUBIO
ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

Rx. Panoramikoa · Periodontzia · Odontopediatria
Kirurgia · Endodontzia · Protesiak · Hortz-zuritzea
PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19
948 450 267

LEITZA
Manuel Lasarte, 7
948 610 713

erran. ELIB

e
APPa

ERABILI
ETA
ZABALDU
EDUKIAK



PERITZA
TABERNA

Pesta onak pasa eta txintxo ibili

MILA ESKER ANTOLATZAILLEI



Mallo AGIRRE ZABALETA Aurrera Elkarteko kidea

«Txaranga, txistua edo trikitixa entzun orduko dantzan hasten naiz»

Bihotza, burua eta eskuak herrian dituen leitzarra da Mallo Agirre. Argi du herri ttikien mugimendua bermatzeko gakoa zein den: «auzolana». Dirurik ez duen herrian, borondatea da sekretua, eta berak berezko du hori: «niri kostatu ez eta gustatu egiten zait, beraz, normalean laguntzeko prest izaten naiz». Familiakoen urratsak segiz, gazterik sartu zen Aurrera elkartearen: «gurasoak, osabak, attunak... Aurrerakoak izan direnez, laguntza behar zutenetan joaten hasi ginen». Hala, «18 urte inguru» zituela kide egin eta ordutik «pestak, inauteriak, Orantzaroa... antolatzen baita herrian izaten dituzten EHMEn, Sagardo Egunean... ere» laguntzen ibiltzen da. Otsailaz geroztik pestak antolatzen aritu da: «egitarauko zenbait kontu lotuta, azal lehiaketa bideratu eta pestetako Plazaola aldizkariari forma ematen» ibili dira. Egitarau aldetik, ez dute gehiegizko ardurarik izan, garai batean ez bezala, gaur egun antolakuntzan eragile dezente baitira: «Udalarekin, Alke Kutur Taldearekin, guraso elkartekoekin (eskolakoak eta institutukoak) eta Gaztetxeko gaztekin elkarlanean lan egiten dugunez, ideiak edukitzea eta herritar guztien gustua egitea errazago» dela adierazi digu.

HAN ETA HEMEN, LAN ETA GOZAMEN

Egitarau zabala prestatu dute aurten ere, «egituran erroto aldatu gabe», aldaketa ttiki batzuk eginez: «astelehenean, Gazte Egunean, 13an, arratsaldean ez dira zezenak izanen. Horren ordez beraiek antolatutako bazkari, elektrotxaranga eta jokoak izanen dituzte. Bestalde, 14an, afal ondoko zezenak ere ez dira izanen». Aurrerakoek, urtero bezala, taberna irekiko dute eta horretan badute egitekorik: «txandak antolatu, gauez lan egiteko zerbitzariak bilatu, edariak eskatu, tokia apaindu...». Diru horrekin kontzertuak ekartzen dituzte, aurten, esaterako, La Jodederak eta Tocandos

la polla taldeak. Besta aurretik mugimendua izanen dute elkartearen. Izan ere, Reparto Egunean egitaraua etxez etxe banatu eta eskean ibiltzen diren 80-90 lagunendako bazkaria prestatu eta zerbitzatu behar izaten dute. Azken egunean, berriz, bazkide bazkarian parte hartzen du. Bien bitartean, egunero-egunero txarangari egin beharreko ibilaldia zuzentzeko eta buruhandiak jantzi eta ateratzeko ardura ere izaten dute: «gainerako ekitaldiak, musika taldeak, zezenak... zinegotziek kudeatzen dituzte». Antolatu ondotik ahal bezainbeste bizi ditu bestak Mallo Agirrek: «jeiki, elkartearen zerbait falta den begiratu eta plazara joaten naiz, dagoena ikustera: herri-kirolak, txakolin dastaketa, dantzariak...». Musikaren bueltan nonahi ikusiko dugu «txaranga, txistua edo trikitixa entzun orduko dantzan hasten naiz». Familia giroan bazkalduta, «batzuetan izebaren etxean, besteetan amarenean, gurean...», arratsaldean, zezen garaietan, «elkartearen pote bat hartzen dugu, zezenak hurbil izaki, oso giro polita izaten baita». Eguna borobiltzeko, etxetik kanpo afaltzen du normalean.

PESTA EROSOAK

Soinu eta dantzak «erakartzen» du leitzarra, eta hain zuzen horren bueltako ekitaldietan ezin izaten du hutsik egin: «San Tiburtzio egunean, ezpata-dantzarien emanaldiari begira; azken egunean Ingurutxo dantzatzan eta egunero txarangaren bueltan ikusiko nauzue». Egunez «ahal dudan ekitaldi guztietan» ibiltzen da, «ordu guztietan badago zerbait, tabernak ez dira ixten» eta hori inguruko herritarrentzat «erosoa da, ez baitira salduta gelditzen». Hori baliatuz ingurukoie pestez gozatzeko deia egin nahi izan die Mallo Agirrek: «ongi etorriak izanen dira, ongi pasa dezatela eta bereziki, errespetuzko pestak izan ditzagula» gaineratu du.

ongi pasa pestak!

FISIOETXEA
Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta
026 kolegiatu zenbakia

Bizkortze ariketak · Kirol eta Zirkulazio Masajea
Osteopatia · Erditze aurrekolondorengo tratamendua
Gimnasia Abdominal Hipopresioa · Etxez etxeko laguntza

Uharte Gotzaina, 8 3.C · LEITZA · T. 948 510 730

Pesta zoriontsuak igaro!!!

edr' gunea
Ainhoa Azpiroz
Esfetizista

Laserra · Solariuma · Depilazioak · Makillajea · Begien edertzea
Aurpegiko tratamendua · Gorputzeko tratamendua · Opari baleak

Elbarren 67 behea · LEITZA · T. 948 510 273 · edrgunea@yahoo.es

Ongi pasa pestak!

Bi Pausu

T. 948 513 611
Elbarren 66 LEITZA

DENAUTO SAGASPER
Tailerra
ongi pasa bestak
AUTO KONPONKETA

Eluseder Ind. · ARESO · T. 948 510 610 · F. 948 510 917

gaztelu scl

KALEFAKZIOA · SANEAMENDUA · GASA · ITURGINTZA · KLIMATIZAZIOA
BAITA ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK ERE

Landa Behikoa Ind, 21 · LEITZA
T. 948 510 086 · 948 510 156 · F. 948 610 856
info@fontaneriagaztelu.com · www.fontaneriagaztelu.com

ONGI PASA PESTAK!

OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS
KAFETEGI OKINDEGIA
948 610 974 | LEITZA

Ostiral, larunbat, igande eta jai bezperetan
PIZZAK egiten ditugu

ONGI PASA PESTAK!

Dia % OKABIO
SUPERMERKATUA
KAFETEGIA

Pesta zoriontsuak opa dizkizuegu!

T. 948 510 731
Landa Etxea
Leitza

KIDE aholkularitza
ongi pasa pestak!

KONTABILITATEA | ZERGAK | AUTONOMOAK | ENPRESEN SORRERAK
AUTOEN TRANSFERENTZIA | ERRENTA AITORPENAK
AHOLKULARITZA JURIDIKOA | NOMINAK, KONTRATUAK...

LEITZA: Landa Ind, Suizpi Eraikina 3 behea · T. 948 510 990 F. 948 510 429
DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5-2 · T. 943 420 348
f info@kide.eus · izaskun@kide.eus · www.kide.eus

• Ogi egin berria
• Prensa, Gosari goxo goxoa (naranja zuku naturala, croissant eta kafea)
• Pastak, Pastelak, Tartak (Enkargatuak egun batetik bestera)
• Izozkiak

PESTA ONAK PASA!!
ELBARREN 20 | LEITZA | 948 510 720



talleres Guria
karrozeriak

ONGI PASA PESTAK!
Landa Ind. P-1531880 LEITZA
T. 948 510 255 · M. 649 383 912
F.948 510 838
talleres.guria@gmail.com

Melo Pinturak ONGI PASA PESTAK!!!
koop.
T. 609 873 178
LEITZA
www.pinturasmelo.com
melopinturas@hotmail.com



MUSUNZAR
OSTATU - JATETXEA

ONGI PASA PESTAK
Elbarren Kalea, 14
948 51 06 07 · LEITZA
musunzarostatua@gmail.com



Maimur ONGI PASA PESTAK!

• Prensa · Opariak · Testu liburuak
• Plastifikatzeak · Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak · Fotokopiak

Elbarren, 15 - Herriko Plaza · LEITZA
maimurleitza@gmail.com · T/F: 948 510 146

OLIVEIRA - VICENTE
eraikuntzak

ongi pasa pestak!

Amazabal, 17 · LEITZA · 629 418 431 · 606 307 810

LEITZARAN AUTO KLUBA

Mikel Aristeta

AUTO LAK SERVICE

Inurrista 21 · LEITZA
T. 948 610 568

www.lakservice.com




Gabriel SARALEGI
Herri-kirol sustatzailea

«Herri-kirolak gustuko dituenak Leitza badu gozatzeko aukera»

Leitzako Arro baserrian 1956an sortu eta «aziendaz inguraturik» hazia da Gabriel Saralegi, Saralegi anaietan zaharrena. Gaztetatik «kirola egiteko gogo» bertatik bertara ikusi du sortetean: «aizkolariak baserrian entrenatzen ziren gure aita zenarekin. Asko pasa izan dira gure etxetik: Patxi Astibia, Olasagasti, Mendizabal zena, Etxebeste, Agite...». Ikusi eta ikasi, urteak joan ahala, «herriko pestetan egiten diren herri-jasotzaile, aizkolari, lasterkarien saioaz gainera, ahari eta oilo apustuak, asto lasterketak... denetariakoak» antolatzen ibili izan da.

HERRI-KIROLAK SUSTATZEN LAN HANDIA

Nafarroako Herri Kirol Federazioaren sortzailetakoa bat izateaz gainera, elkarteko lehendabiziko lehendakaria izan zen Saralegi. Federazio bat behar bezala kudeatzeak «lan eta buruko min asko eman eta ordu asko kentzen» baditu ere, «gainerakoan laguntzarekin» dena da egingarri: «estatutuak aprobatu, martxan jarri, txapelketak antolatu...» denetarik egin zuten. Donezteben zazpi probintzietako txapelketa bat egitea ere lortu zuten «Hegoaldeko lehendabizikoa, lehenago Atharratzen egiten zutena». Aizkorak apusturik jokatu ez badu ere, txapelketetan gogor ibilia da. Areago, atzerritarrak etorri ziren lehendabiziko aldia «beraien saioa ikusita, egurra altueran jarrita moztzen lehendabiziko ni hasi nintzen» adierazi digu. Arrakasta hartu zuenez, kanpoan ere asko ibilia da: Ameriketara, Japonen, Alemanian, Italian, Frantzia..., esaterako.

HERRIAN AUZOLANEAN

Herri-kirolen bueltan ez ezik, herriko beste auzolanetan ere beti eskua luzatzen duen horietakoa

da leitzarra: «errepide moldaketak eta mendi garbiketak eta antzeko auzolanak egiteaz gainera, alemani, ingelesei, suediarrei... pagoa nola mugarratzen diren erakusteko saioak egin izan ditugu; Eguberrietako kabalkada, herriko bestetako ekitaldi batzuk... antolatzen ibili izan naiz, eta hori ere auzolana da».

Bai herrian, bai eta herritik kanpo ere herri-kirolak sustatzen eta auzolanen egin duen lanaren adierazgarri, eta herritarrek hala nahi izanda, aurtan Leitzako pestetako txupinazoa botako du herri-kirolzaleak. Hasieratik, talogile, irakasle erretiratuak eta beraren artean botaketa egiten zela esatera joan zitzaizkionean «harrituta» gelditu omen zen; eta gerora, pestak antolatzeko bilkura egin zutenean, jaso zuen berria. Momentuan bertan «jokoz kanpo» gelditu bazen ere, «pentsatzen jarrita, jendeak egiten ditugun gauzak eskertzen dituela» ikusi du: «jendearen esker onak eta laguntzak aurrera egiteko indarberritu egiten gaitu; eta horrela herri-kirola bizirik mantentzen da».

HASIERA BOROBILO

Herritar askorentzat bezala, Saralegiarentzat ere, herriko

«Leitza jaio eta bizitako herri-kirolzaleak bildu ginen behin, 130 inguru»

pestak txupinazo aurreko herri-kirol saioarekin hasiko dira. Hasieran inauterietan egiten zen saioa; gero pestetako azken egunean, baina bost bat lagun biltzen ginen; eta azken 25 urteetan pestetako bezperan «eguerdian egiten dugun saioan 50-60 lagun inguruk hartzen dugu parte. Ondotik, Udalak bazkarira gonbidatzen gaitu eta giro ederra izaten da; denak pozik ikustea ederra da».

HERRI-KIROLZALETASUNA GAINBEHERAN

Hasierako saio horretan kuadrilla ederra biltzen bada ere, duela 30 urte eginiko topaketa batean bikoitza baino gehiago bildu ziren: «orduan Leitza, inguruko herriak bezala, basamutilen herria zenez, plazan, estazio zaharrean, Altzuko zelaian, Plaza Zaharrean... denean aritzen ginen». Etxe askotan zeuden jokatzeko zutenak eta orduan Leitza jaiotakoak eta bizitakoak bildu eta egur bana ebakitzeko hitzordua antolatu zuten: «130 lagun inguru bildu ginen» adierazi digu, «gaur hasiz gero ez genukeen inondik inora bilduko» gaineratuz. Baserri munduak behera egiteaz gainera dauden baserrietan makineria gailentzen dela eta esku tresnak galtzen ari direla argi du leitzarrak. Horrekin batera, herri-kirolzaletasuna gaibeheran doala azaldu nahi izan du, baina herrian bakarren batzuk eusten diete oraindik: «Ruben eta Eneko Saralegi, ilobak, Jon Rekondo...».

AURTEN GIZA-PROBA

Tradizioari eusteko bezperakoaz gain izanen da beste ikuskizunik: «ardura hartzen dudanean, ekitaldia bukatu arte tentsio puntu bat izaten du eta tentsio une hori bukatzen denean hasten naiz pestaz gozatzen» adierazi digu. Aurten ere izanen du ardurarik. Izan ere, giza proba egingen dute: «askok uste baino harri handiagoak izanen dira erabiliko direnak». Baina pestetan ez ezik, Talo Egunean; eta neguan, beste hiruzpalau saio egiten dira. Beraz, «gustuko duenak Leitza badu aukera».



SAGASTI JATETXEA
Festak ongi pasa!

Festetan ere menua, ogitartekoak, plater konbinatuak, gosariak
Elbarren, 98 · LEITZA · 948 610 637 · 629 229 449

Jantziak - Loreak
Jostailuak - Papertegia
Garbiketarako Produktuak
Etxeko Tresnak
Herramientak

Olaia Bazar

Ongi pasa pestak!

Landabekoa - Leitza - T. 948 510 437 - 667 675 463

ONGI PASA PESTAK!

DANI
ITURGINTZA

ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

672 18 31 99
iturgintzadani@gmail.com
LEITZA

Lopenea
Pesta onak pasa!

Elbarren, 47 - LEITZA
606 27 35 34 - 688 64 08 34
www.lopenea.com

BOKATAK · KAXULAK
MENUA · PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK

EZKAIN eraikuntzak S.L.

ongi pasa pestak!!

Lizarraga, 3 · LEITZA
M. 650 910 868 · 650 910 867
T./F. 948 610 956 · 948 610 956
ezkain1@gmail.com

ZERALEKU

- ZERAMIKA
- PARKE LAMINATUA
- KOMUNNEKO ALTZARIAK
ETA OSAGARRIAK

Ongi pasa, pestak!!!



ORAIN

- SUKALDEAK
- LOGELAK
- SOFAK
- BARNE
DEKORAZIOA

*Etxearen 3 dimentsioko
aurre diseinua egingo dizugu!!*

URKO

ZERALEKU HOGAR



BEARZUN DETALL S.L. | Albiasu errep. ind. 31870 Lekunberri
948 504 486 | zeraleku@zeraleku.com | www.zeraleku.com

BEARZUN DETALL S.L. | Aralar kalea, 58 31870 Lekunberri
948 504 344 | cocinas@urkozzeraleku.com | www.urkozzeraleku.com

Pirinioetara eta Goizuetara joanen da Beti Gazte

Asteburu honetan joatekoak dira Panticosa ingurura eta Amabirjin egunean bisitatuko dute Goizueta

AITOR AROTZENA

Azken urteetako ohiturari eutsiz, uztailean Pirinioetara irteera antolatu du Beti Gazteko mendi taldeak. Aurten, Panticosa ingurura joanen dira uztailaren 28an eta 29an. Apuntatzeko epea uztailaren 24an bukatzekoa zen eta 25 lagunendako lekua dute. Larunbatean, 05:30ean abiatuko dira herritik eta Panticosako bainuetxetik Respumosoko aterperako bidea egiten dute eta hemendik Pico del Infierno Central eta Tebarray mendietara igotzeko aukera ere emanen dute. Respumosoko aterpean egiten dute lo. Igan-



Beti Gaztekoak Piriniotan 2008an.

dean, GR HRP bidea egiteko edo Balaitousera igotzeko aukera izanen dute.

Bertze aldetik, abuztuaren 15ean Goizuetara mendi ateraldia ere egiten du Beti Gazte, herrian bestetako egun handia dutela baliatuz.

EHuko udako ikastaroetako bat Harriondoan irailean

Euskal Herriko Unibertsitatearen uda ikastaroetako bat Harriondoa Kultur Etxean egiten dute irailaren 28an eta 29an. Hain zuzen, *Hizkuntza-aren garapenaren alderdi soziolinguistikoak haurtzaroan. Ez-ohiko garapenean eskuhartze eta baloraziorako pausok* hogeitau orduko kastaroa eskainiko dute gaztelaniaz. Izenematea on-line egin daiteke, www.uik.eus webgunean eta informazio gehiago ere bertan topa daiteke.

San Fermin elkarteak elkartasun bazkaria abuztuaren 19an

San Fermin jubilatuta eta pensionisten elkarteak elkartasun bazkaria antolatu du abuztuaren 19rako. 14:00etan izanen dute hitzordua elkartearen egoitzan. Menuan tomate entsalada, patatak errioxar era, saiheski errea eta letxuga entsalada eta sagar tarta izanen dute, dena ura, ardoa, kaba, kafea eta likoreekin bustia. Bazkarirako txartelak jubila-tuen elkartearen har daitezke abuztuaren 12ra bitarte, 26 euro ordainduta.



AITOR AROTZENA

Sanferminak dotore joan dira aurten ere

Bixente Igarzabal kirolariak botatako txupinazoaren aitzinetik erraldoi eta buruhandi konpartsa aurkeztu dute aurten sanferminetan. Ondotik, bortz eguneko besta ederrak joan dira. Unai Gurrutzagak ezpatada-dantzari taldea gidatu zuen lehen aldiz eta Batzukada taldea ere aurkeztu zen.

Hemen erabili
DenakBat
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Ekitaldi berriak izanen dira aurten bestetako egitarauan

Mugimendua eta prestaketak hasiak dira herrian Andre Mari beste begira

IRUNE ELIZAGOIEN

Herriko bestetarako hilabete baino guttiago falta den honetan, bestetako prestaketan hasiak dira herritarrek: dantzariak entseguetan, herri-afariko eta asauko taldeak bilerak egiten, musikariak kantu berriak prestatzen eta bertze hainbat zereginetan.

Berrikuntzarik ere izanen da dagoeneko prestatuxea dagoen aurtengo egitarauan; pare bat aipatzeko, Funbox Factory (bizikleta *freestyle* kirola eza-gutzera emateko sortu den taldearen ikuskizuna) edota sokatira desafioa bertsolariak girotua.

Bezperako herri-afarirako txartelak abuztuaren 10a baino lehen hartu behar dira (20 euro). Epez kanpo erosten duenak bortsu euro gehiago ordaindu beharko ditu.



Funbox Factory, berrikuntza aurten.

Eliza bisitatzeko aukera udako arratsaldetan

Herriko bisita gidatuez eta gaueko ibilaldiez gain, uztail eta abuztuko arratsaldetan Andre Mari Eliza irekita egonen da egunero 15:00etatik 19:00etara.

30 hurrek parte hartu dute udaleku irekietan

Uztailean udaleku irekiak egin dira. Naiara Martin, Janire Martin eta Aiora Danboriena begiraleekin, Haur eta Lehen Hezkuntzako 30 haur baino gehiagok gozatu dute Landagain eskolan.



AIORA DANBORIENA



XURXO IBAÑEZ

Trikitilarien eta Altxataren kantuak

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatutako II. Maketa Lehiaketan parte hartu zuten herriko trikitilariak beraiek sortutako kanta grabatu dute uztailaren bigarren astean. Bertzetik, Altxata elkarteak ere bere kanta grabatu du, Xurxo Nuñez eta Itsaso Elizagoien laguntzarekin.



USOA
Nekazari kooperatiba

**ORAIN
GASOLINA ERE**

T. 948 635 214 ETXALAR

XAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBUR EGINDAKO INPRIMAKETA
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK





LAURA ELIZAGOIEN

Usategiak Zegamako IV. Ehiza Azokan

Uztailaren 14an, hirugarren urtez segidan, Usategiak Zegamako ehiza eta natura azokan parte hartu zuen. Bertan, paleta egite erakustaldia eta erabiltzen dituzten erreminten erakusketa ttiki bat egin zuten, baita zonaldeko informazioa eta usategitako maketa eta bideoa erakutsi ere.

Emakumearen Oroimen Baratzea inauguratu dute

Sormenez bustitako ekitaldi hunkigarriarekin zabaldu dute emakumeen historiari tokia eginen dien baratzea

NEREA ALZURI

«Sentsazio eta sentimendu aunitz bizitu ditugu prozesuan. Atzokoan, lan guztiaren saria etorri zitzaigun bihotzera, emozioak irentsi ahal». Hau xe irakurri genuen uztailaren 15ean Emakumearen Oroimen Baratzea inauguratu eta biharramunean.

Bertsoak, clowna, musika, kantua, dantza... Hainbat osagai izan zituen inaugurazio ekitaldiak eta jende aunitz bildu zen, bertsoekin plazan hasi zen ekitalditik baratzeraino. Mentxu Peña alkateak ere hitza hartu zuen eta ondotik, jendeak landareak landatu eta emakumeen historiari partekatu zituen.

Egia loratu dadin

Urratsez urrats sortu da Emakumearen Oroimen Baratzea.

Auzolanean aritu dira hilabete hasieraz geroztik, baratzearen bidea lantzen. Berezia bezain ederra da, izaera sendoarekin. Aunitzek inaugurazio egunean eta bertze batzuk argazkien bitartez bizitu dute bertan islatzen dena: bide bat da, espiral itxura duena eta honen akabailan, iturria dago, emakumeon umetokia irudikatuz.

Bidean, hiru borobil edo baratze mutur daude, sortzen diren fruituak edo emaitzak islatu nahirik, eta haritz bat, baratzeoko landareak eta loreak jarri dituzte tarte horietan eta eskualdeko emakumeak oroimenean, historiak bildu. Ekitaldi hasierako bertsoetan erran bezala, «zelai eder bat eginen dugu, loratu dadin egia, hazietatik behingoz sortzeko, gurea den historia».



Emakumearen Oroimen Baratzearen inaugurazio eguna. UTZITAKO ARGAZKIAK

Lehiaketan saritutako argazkiak

Aurten ere bestetako programaren azala aukeratzeko lehiaketa egin du Udalak eta aurkeztutako 24 marrazkiren artean, Marta Zabala Iparragirre eta Alaitz Ibarra Bereaurenak izan dira sarituak.



G. PIKABEA

Udalekuak eta barnetegiak topera!


Urte-sasoi honetan ere, aunitz dira herrian egonaldia eginen dutenak. Arantzako Aterpeak eta Beintzako aterpetxeak antolatutako Euskaraz Blai udalekuetan, 280 hurrek parte hartuko dute eta Orereta, Abadiño, Irun eta Zamudioko udalek antolatutako udalekuetan, 270 haur inguru izanen dira.

Bertzalde, AEK-ko barnetegiak ere martxan dira. Guraso barnetegiak izan zen lehenbiziko eta orain eta abuztuaren, barnetegi arruntak izanen dira. 120 bat ikasle espero dituzte.


Bestetako zikiro jaterako txartelak salgai

Gaugero bestetako azken ukituak ematen ariko dira herritarrak. Aurten abuztuaren 14tik 17ra izanen dira eta lehenbiziko egunean, 14:30ean, zikiro-jatea eginen da. Bazkaria joan nahi duenak txartelak abuztuaren 2a baino lehen erosi beharko ditu. Txartelak herriko lau ostatuaren salgai daude, 25 eurotan. Hortik aitzinera lau egunez hainbat ekitaldi izanen dira.

Bestak bukatu ondotik, abuztuaren 25ean, Arantzako Rock jaialdia eginen da, Gazte Asanbladak antolatuta.



T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net



aterpe
albergea jatetxea ostatua



San Juan Xarren igandero eman dute meza hilabete honetan. OSKAR TXOPERENA

Igandean izanen da azken elizkizuna San Juan Xarren

Urteotan auzolanetako plangintza txukuna egin denez, ongi zaindua eta garbi ikusten da ingurua

TTIPI-TTAPA

Igande honetan, uztaileko azkena izanik, denboraldiko azken elizkizuna izanen da San Juan Xarren. San Juan egunez hasita bertan izan da igandero meza. Biltoki Ttikiko gazteek ere euren kantina paratzen dute igande horietan, harat-honatetan gurasoek lagunduta. Ongi zaindua eta garbi ikusten da aspaldi

honetan San Juan Xar. Nabari da azken urteotan auzolanetako plangintza txukuna izan dela. Hiruna laguneko hogeitaz talde aritzen dira zainketa lanetan, talde bakoitzak hilabete bateko garbitasunaren ardura duelarik, txandaka (oihalak eta gaineko zaborra bildu, baselizaren plaza garbitu, iturri ingurak txukundu...).

Irailaren 2rako antolatu dute XXVIII. mendi bizikleta zeharkaldia

TTIPI-TTAPA

Aurten hogeita zortzigarrenez antolatuko da Igantzin mendi bizikleta zeharkaldia, urterik galdu gabe jarraian. Bada zerbait. Iazko ibilbiderik luzeena 30 kilometro ingurukoa izan zen, gogorra nahitanahiez inguruko mendiak zeharkatzekotan. 100 lagunetik goiti etorri ziren iazko ekitaldira eta Biltokiko antolatzaileek bertze hainbertze izatea nahi lukete aurten ere. Jakina denez, haurrek ere izaten dute ibil-



Mikel Urtxegi, iaz. OSKAR TXOPERENA

tzeko aukera, herrigune inguruan antolatutako kilometro pare bateko ibilbide xamurragoekin.

Kontribuzioa bi zatitan ordainduko dela jakinarazi dute

Herriko Etxetik jakitera eman dutenez, aurtengoetatik hasita, kontribuzioak bi zatitan ordainduko dira hemendik aitzinera, erdia uda aldean eta bertze erdia urtearen hondaraldean. Orain arte abenduan ordaindu izan dira osorik. Bertzalde, Herriko Etxearekin jarraituz, bandoa zabaldu dute herritarrei kanposantua garbitzeko eskatuz, ez behar berezia duelako, belarrak txarrak uda partean gehiago mugitzen direlako baizik. Aspaldi honetan, orokorrean, hagitz ongi zaindua dago kanposantua.

Irisarritarren bilkura egin zuten uztailearen 15ean

Badira hiruzpalau urte Irisarriko auzotarrak, bertan sortutakoak eta familikoak, mahai baten inguruan biltzen hasi zirela. Uztailearen 15ean ospatu dute aurten auzotarren besta, Irisarri Landen. 40 lagun inguru bilduziren. Garai batean Cuartel del Mediodía deitutako auzoaren zati bat bertzerik ez zen Irisarri. Hirutan banatua ere egon izan da: Argarate, Mendibil eta Irisarri. Gur egungo Irisarri Errotatik hasi eta Jauregia bitarteko baserri guziak hartzen ditu, Mendi-bilko errekarren bi aldeetatik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herri-kirol taldea garaile Iruñean

Uztailearen 11n Igantziko haurren herri-kirol taldea Iruñeko sanferminetan izan zen. Martxoan Nafarroako finalean aritu ziren taldekide berak lehiatu ziren. Oraingoan ez zuten deus jokoan, erakustaldia bertzerik ez baitzen, baina halere igantziarrak garaile izan ziren berriz.

BEROPEL
egurrezko pellets

EHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250

info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

ES 025



Joan den urteko edizioan 28 kirolarik parte hartu zuten. MAIDER PETRIRENA

Arretxeko bordako Igoera egingen dute abuztuaren 4an

Lasterka nahiz bizikletaz egin daiteke probaren zazpigarren edizioaren ondotik bazkaria ere izanen dute kanpinean

MAIDER PETRIRENA

Arretxeko bordako VII. Kro-noigoera abuztuaren 4an antolatu dute. Urtero bezala, igoera lasterka nahiz bizikletaz egiteko aukera zabalik dago. Plazan abiatuko da proba 10:00etan eta ordu erdi lehenago irekiko dute izena emateko aukera. Proba kronometratua izanen da eta irteera txandaka emanen dute. Proba akitutakoan, sari bana-keta, zozketa mundialak, luntxa eta duxtak ere izanen dituzte eta 14:30ean bazkaria

Ariztigain kanpinean. Bazkarirako izena eman daiteke kanpinean abuztuaren 1a arte. Errekorra hobetzeak ere saria izanen du.

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, kirolariet libreaki bere gain hartzen dute parte-hartzeko aukera eta hortaz, ez dituzte beraien gain hartuko gertatzen ahal diren ezbeharren ondorioak. 16 urte bitarteko neska-mutikoei beraien guraso edo tutore baten baimena beharko dute parte hartu ahal izateko.

Etxegienerako Agustin Arretxea zapatagilea hil da

Agustin Arretxea Manterola uztailaren 1ean hil zen, 82 urte zituela. Etxegienerako zapatak konpondu, saldu eta esku pilotak konpondu eta egin zituen urteetan. Helbideratu gabeko errezihoak ere kudeatu zituen udalarentzat.



UTZITAKO ARGAZKIA



OLAIA GANDARA ETA IRATI AGESTA

Ttikiak eta koxkorrak ludotekan

Ekainaren 19an eskola akitu eta 20an hasi zuten ttikienerako ludoteka zerbitzua. Uztailaren 2an eman zioten hasiera.

ESKELAK eta HILBERRIAK eguneratuak

erran.eus
webgunean



caser
residencial

www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua • Farmazia
- Erizaintza • Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

- FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA
- Animazio soziokulturala • Nutrizioa
- Podologia • Odontologia eta dentista
- Logopedia • Audioprotesista

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erijiro zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntza
- Laguntza teknikoaren kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780

BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169



Digitalizazioa egin bitarte liburutegia goizez bakarrik egonen da zabalik.

Liburutegia informatizatzeko prest dagoeneko

'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimenaren balorazio «bikaina» egin dute liburutegitik

MARGA ERDOZAIN

Nafarroako Liburutegi Sarekoek eman beharreko urratsen zain daude. Udalak Gobernuarekin egindako kudeaketari esker, aurreko liburutegiko zerbitzu guztiak digitalizatu dituzte. Une honetan garbiketa egin da. Horri esker, liburutegiak zaharkituta eta hondatutak zituen liburu, aldizkari eta bertzelako euskarrien kopuru handia apaletatik kendu du (dohainikemanen dituzte). Garbiketa eginda, Udalak dagozkion lizentziak eskuratu behar ditu. Hori egin ondotik, Liburutegi Sareak enpresa bat ekarriko du dagokion informatizazioa egin dezan. Hori guztia egin bitartean, liburutegiak goizeko ordutegia izanen du, 10:30etik 13:00etara egonen da zabalik.

Katalogoa saretzea

Zerbitzuen informatizazioak liburutegiko funtzionamendua aldatuko du. Digitalizazioak erregistroa, sailkatzea, maileguan, liburutegiaren arteko maileguak, katalogoaren kontrola... den-dena, era digitalean kudeatzea ahalbidetuko du.

Horrela bada, katalogoa sarean egonen da eta erabiltzaileek edozein unetan kontsultatu eta erabili ahal izanen dute. Irakurleek ere txartel berria egin beharko dute.

Liburutegi sareak dagoeneko bere liburutegi guztiak digitalizatuak ditu. Gainerako liburutegiak, udal liburutegiak (bederatzi guztira), digitalizatu gabe daude. Aipatu behar da Doneztebekoa izanen dela digitalizatzeko plan honen barrenean sartuko den lehen-dabiziko udal liburutegia.

Irakurri, gozatu eta oparitu

Ekimenaren balorazio «bikaina» egin dute liburutegitik. Bi hilabeteko epean mailegaturako 1.233 liburuetatik 660 euskarazkoak izan dira. Aitzineko urteko datuekin aldaratuta mailegutako kopuru orokorra bikoiztu egin da, eta euskarazko liburuen kopurua, berriz, laukoiztu egin da eta aurreko 150 eresketa-txartel banatu dira. Doneztebeko Nerea Apezetxea eta Beintza-Labaiengo Adur Etxeberria izan dira aurtengo ekimeneko irabazleak.

Bordaxoko aparkalekua erabilgarri dago

Uztailaren hasieratik Bordaxoko aparkalekua irekita dago. Udalak lurzorua jabea den Beola familiarekin sinatutako hitzarmenari esker, 44 auto gehiagorendako tokia izanen da. Udalak hitzarmena ahalbidetu duen familiari eskerrak eman nahi izan dizkio.

Abuztuko ludotekan izena eman daiteke oraindik

Udal ludotekak abuzturako bi plaza libre ditu. Interesa dutenak udal bulegoetatik pasatu ahal dira, argibideak jasotzeko eta izena emateko. Zerbitzua hilabete osoan, astelehenetik ortziralerara eta 09:00etatik 14:00etara bitarte eskainiko da.

Erreka elkartearen eskutik, Kirol Eskola uztailaren 30etik abuztuaren 24ra

MARGA ERDOZAIN

Aurreko ere, Doneztebeko Erreka Kirol Elkarteak sei urtetik goitikoendako Udako Kirol Eskola antolatu du. Kirol Eskolaren helburu nagusia uda pasatzeko bertze modu bat eskaintzea da. Astelehen, asteazken eta ortziraletan izanen dira saioak, uztailaren 30etik abuztuaren 24ra.

Eskolako frontoian eta kiroldegian bilduko dira, 11:00etatik 12:00etara eta 12:00etatik 13:00etara, hurrenez hurren. Parte hartu nahi dutenek 36 euro ordaindu



Sei urtetik goitikoek bideratua da.

beharko dituzte (elkarteko bazkideek 33). Izen-emateak uztailaren 25ean egin ahaliko dira, 11:00etan frontoian. Imanol de Rueda izanen da gidari (638 537754).



UTZITAKO ARGAZKIA

Armonia musika bandaren oroimena

Iruñeko Udalak antolatutako ekimenen Doneztebeko alkateak eta Juan Ramon Ostizek parte hartu zuten. Ekimen horren bidez, orain dela 100 urte (1918an) sanferminetan ospatutako jaialdi batean parte hartu zuten 12 musika taldeak omendu nahi izan dituzte.



Emakumezkoen I. San Fermin Torneoaren podiuma, ezkerretik zazpigarrena (behean) Naroa Elizalde. UTZITAKO ARGAZKIA

Naroa Elizalde hirugarren San Fermin Torneoan

Labrit pilotalekua ia bete zen final nagusia eta hirugarren posturako lehia ikusteko

FERMIN ETXEKOLONEA

900 lagun inguru bildu ziren uztailaren 14an Iruñeko Labrit pilotalekuan lehendabizikoz jokatu den Emakumezkoen I. San Fermin Torneoaren bukaera ikusteko. Pilotalekua ia beteta, giro ederra izan zuten, eta jendearen aurpegiek ederki islatzen zuten partidek era-

gindako ikusmira. Torneoaren finala ez ezik, sanferminetako azken egunean jokatu ziren hirugarren eta laugarren postuak. Tartean izan zen Elizalde, herritarra. Arrate Bergara nafarrarekin bikote eginez, bederatzi tantoko aldearekin (18-9) irabazi zieten Andrea Aldaregia nafarrari eta Maite

Tolosa gipuzkoarrari. Hala, hirugarren sailkatzea lortu zuten.

Familiakoen babesean

Familiakoen animoak eta txaloak lagun, bai Lesakako kanporaketan, bai eta Iruñeko partidaren ere jokaldi ederrak egin zituen zubietarrak. Herritarrek, lerro hauen bidez, zorionak eman nahi izan dizkiote.

Final handia

Final handian, berriz, Olatz Arrizabalaga bizkaitarra eta Maite Ruiz de Larramendi nafarra gailendu ziren, Naroa Iturain nafarra eta Miren Larrate gipuzkoarra 22-12 mendean hartuta.

Aurten ere festetan pala txapelketa jokatuko dute

Aurten ere, herriko zenbait gaztek hamabost urtetik goitikoendako pala txapelketa mistoa antolatu dute. Uztailaren 21a bitarte eman zitekeen izena, plazako iragarki taulan zintzilikatutako paperean izena idatziz. Bikoteak (zozketa bidez erabakitzeak zituzten) egin eta laster partidak jokatzeari ekinen diete. Beraz, hemendik aurrera plazara hurbiltzen denak izanen du zer ikusia. Bestalde, gurasoek ere festetan haurrentzako ekitaldiren bat antolatzeko bileraregitekoa zuten hilaren 19an.

Euskararen Eguna antolatzen hasiak dira herriko gazteak

Euskararen Eguneko antolaketa lanei ekiteko uztailaren 21ean biltzekoak ziren herriko gazteak. Batik bat musikari dagozkion kontuak lotu nahi zituzten. Herriko besten ondotik berrartuko dute gaia. Beraz, xehetasunak hurrengo zenbakietan bilduko dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herriarteko txapelketan finalean

Mattin Agesta eta Endika Santesteban herritarrak herriarteko txapelketako finalean izan dira, Labriten. Alebin kategorian jokatu zuten, Doneztebe taldearekin. 2-18 galdu zuten Iruñeko Rekalde eta Sanchezen aurka. Halere, txapelketa ederra egin du bikoteak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Joaldunak izaban eta Erreterian

Izaban ospatzen duten Hiru Behien Zerga Egunean izan ziren herriko joaldunak joan den uztailaren 13an. Biharamunean, berriz, Erreterriako Erromeri Egunean hartu zuten parte. Uda sasoiari hanturatu eta hemen ikusteko aukera izanen dugu.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Besta parte-hartzaileak izan dituzte

Hurrek herri-kiroletan parte hartu zuten, gaztetxoek dantza emanaldia eskaini zuten, herri-bazkarian kuadrilla ederra bildu zen... Trikitixak eta bertsoek ez zuten hutsik egin eta Ibintza taldeak zozketako irabazleak jakinarazi zituzten: 1.saria 792; 2.a 166; eta 3.a 641 (taldekideekin harremanetan jarri).

Maika Ariztegi eta Oihana Mindegia txapeldun

Sanferminek zapore gozoa utzi dute herrian. Iruñean, Lesakan zein Azpilkuetan izan dira herriarrak. Han eta hemen parte hartu dute, eta ez edonola gainera: Maika Ariztegi ingude altxatze lehiaketa irabazi zuen, eta Beti Gazte taldeko Oihana Mindegia, berriz, Nafarroako sokatira mistoan. Alazne Untxalo herritarraren bertsoak izan ziren entzungai hilaren 12ko bertso musikatuen saioan, eta Baluarte Kantu Zaharren Bazkarian Aurtizko joaldunak izan ziren ikusleen gozamenerako.

Udalak sahatza norendako den laster jakinaraziko du

Udalak Iberdrola inguruan, erreka ondoan, erori zen sahatza eskatzeko bandoa zabaldu zuen. Nafarroako Gobernuak mendizainak lau eurotan zenbatetsi zuen eta zuhaitza interesatzen zitzaionak uztailearen 20a baino lehen eskaera egiteko deia luzatu zuten. Bandoan jakinarazi zutenaren arabera, eskaera aunitz baldin badaude, zozketa bidez erabakiko dute nori eman. Era batera edo bertze- ra, laster jakinaraziko dute sahatza norendako izan den.

Javier Sein Munduko Marathon Kopan

Aurtengo denboraldian geldialdi bat egin zuen Italiako Munduko Marathon kopako lasterketa prestatzeko eta Italiako Dolomitetan, Selva di Val Gardena proban izan zen, zazpigarren postua lortuz.




1951tik
Casa Cambra
 lentzeria-etxea

Udako merkealdia

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

BAZTAN-BIDASOA



Cedernak eskainitako formakuntza tailerretako bat, Alkaiaigan. UTZITAKO ARGAZKIA

17 ekintzaileri babesa eman die Cederna-Garalurrek

Baztan-Bidasoaldean hamar enpresa abiarazi dituzte 2018. urteko lehen seihilekoan

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur Elkarateak 17 ekintzaileri (13 emakume eta lau gizon) laguntza eta aholkularitza eman dizkie. Ekintzaileri horiek hamar enpresa jarri dituzte martxan, eta hamar lanpostu sortu dituzte Baztan-Bidasoaldean 2018ko lehen seihilekoan.

Laguntza jaso dutenen artean, nabarmenezkoa da elkaratearen laguntza eskatu duten emakumezko ekintzaileren kopuru altua, % 76,47a.

Horrez gain, Cederna Garalur Elkarateak arreta egin die tokiko bortz enpresetako zortzi kontsultei; horietatik bi

sortu berriak dira (bi urte baino guttiagoko antzinatasuna) eta hiru bi urtetik goitiko antzinatasunekoak.

Bertzalde, Baztan-Bidasoaldean, Cederna Garalur Elkarateak bi tutoretza eman ditu ekintzaileri eta autonomoei bideratuta. Tutoretza horietan, hamar lagunek hartu dute parte, eta gaiak hauexek izan dira: *Nola burutu nire izapideak ogasunarekin linean: ziurtagiri digitala eta Nafarroako Gobernuaren laguntza-programa* eta *Antolatu zure paperak ogasunarekikoak betetzeko*, biak Cedernak Lesakako Alkaiaiga industrialdean duen egoitzan.

Jardunbide horiek Cederna Garalur Elkarateak Nafarroako Mendialdean enpresei ematen dien laguntza-zerbitzuaren parte dira, eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren finantziazioa dute, Nafarroa Ekintzaileri Sarearen bitartez.

EKINTZAILEREN

%76,47A

EMAKUMEAK IZAN DIRA

Bukatu da Bidasoa ibaiko izokin arrantza denboraldia

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 12an harrapatu zuten Bidasoan izokinaren Arrantza garaiko 66. alea, denboraldi honetarako ezarrita zegoen kupoa betez. Azken izokin hori jatorri basatiko eta negu bakarreko alea izan da, 1,77 kiloko pisua eta 60,2 zentimetroko luzera zituena, eta koilaratxoaz harrapatu zuen Montoia aldean Hernaniko (Gipuzkoa) Alberto Bartolomé arrantzaleak.

Arrantzaturiko 66 izokinaren artean, 55 negu anitzeko aleak dira eta 15 negu bakarrekoak. Alerik handienak 7,63 kiloko pisua eta 930 milimetroko luzera izan ditu, eta ttikiaren 1,60 kilo eta 540 milimetro. Harrapatutako ale guztien artean, 30 Mugairiko arrain-haztegiko izokinak ziren, hots, arrain guztien % 45a.

Guztira, 34 arrantzalek lortu dute izokinaren bat harrapatzea. Ale kopururik handiena arrantzatzen duena David Miranda izan da: sei izokin, guztira.



ARANTXA AGIRRE

Muxikoak dantzatzen Lizarietan

Lizarietako gainean, Sara, Etxalar, Bera eta Irungo dantzariak bildu ziren uztailaren 15ean, Muxikoak dantzatzeko aitzakiarekin. Bertan elkartu eta ordubete eman zuten dantzan. Ohi bezala, Larrain-dantzarekin eman zioten bukaera ekitaldiari.



ARANTXA AGIRRE

Gure Txokoako dantzariak Iruñean

Berako Gure Txokoa taldeko dantzariak Iruñeko Sanferminetan erakustaldia eskaini zuten Sarasate pasealekuan. Bertzeak bertze, Berako makil-dantzak, aureskua eta Bordon-dantza dantzatu zuten eta ondotik, bestan mugilduak segitu zuten.

Santo Domingo bestak abuztuaren 2tik 5era izanen dira

Egun handian herri bazkaria izanen dute eta hondar egunean aizkora apustua eta Txamukos taldea ikusgai eta entzungai

TTIPI-TTAPA

Lau eguneko Santo Domingo bestak antolatu dituzte aurten ere Gaztelun, egitarau zabalarekin.

ABUZTUAK 2, ORTZEGUNA

Arratsaldean raketa partidak. Hurren jokoak. 20:00etan suziak eta ondotik txistulariak herria alaitzen ibiliko dira.

ABUZTUAK 3, ORTZIRALEA

Goizez eta arratsaldez puzgariak. Arratsaldean txokolata-da. 20:00etatik 22:00etara dantzaldia Agerralderekin.

ABUZTUAK 4, LARUNBATA SANTO DOMINGO EGUNA

Gosaria plazan. 11:00etan Meza Nagusia. Ondotik salda. 14:30ean herri-bazkaria. Ondotik dantzaldia Agerralderekin. Gaez DJ Endara.

ABUZTUAK 5, IGANDEA

13:00etan aizkora apustua: Donato Larretxea eta Xanta Souza, Kañamares eta Nerea Sorondoren kontra. 17:00etan mus eta partxis txapelketa. 19:00etan Txamukos taldea. Gero, taloak izanen dira eta akitzeko, Gaixoa Ni.



Ostatuan nahiz plazan, giro ederra izanen da aurten ere. UTZITAKO ARGAZKIAK

DONEZTEBEN neurria egindako etxebizitzak



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)



135.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren araberako finantziazioa, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



Aukera paregabea Donezteben etxe berria erosteko



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



BEINTZA-LABAIEN

Lau eguneko bestak prest abuztuko lehen astebururako

Larunbatean aizkora apustua eta igandean Euskal Herriko 3. Mailako aizkora txapelketaren kanporaketa jokatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Egun batean Beintzan, hurrengoan Labaienen, lau eguneko bestak antolatu dituzte.

ABUZTUAK 3, ORTZIRALEA (BEINTZA)

20:00etan altxaferoak, besteei hasiera emateko. Ondotik karrikarronda herriko trikitilariekin. 21:00etan zopak, Iturro elkartean. Gaez dantzaldia Aimar DJrekin.

ABUZTUAK 4, LARUNBATA (LABAIEN)

Goizean karrikarronda herriko trikitilariekin. 12:30etan aizkora apustua: Larretxea eta Arria V.a, Vicente eta Saralegiren aurka. 17:00etan mus txapelketa. Egunean zehar *cards* eta puzgarriak. Arratsaldean eta gaez dantzaldia Trakets taldearekin.

ABUZTUAK 5, IGANDEA (BEINTZA)

Goizean karrikarronda Iturenko txistulariekin. 11:00etan Meza Nagusia. Ondotik, herriko dantzariak eta luntxa. Egunean zehar puzgarriak eta *Looping bikes*. 18:00etan Euskal Herriko hirugarren mailako aizkora kanporaketa. 21:00etan tortilla eta postre lehiaketa. Arratsaldean eta gaez dantzaldia Modesto soinulariarekin.

ABUZTUAK 6, ASTELEHENA (LABAIEN)

Goizean karrikarronda Iturenko txistulariekin. 14:00etan: herri-bazkaria, A. Peñagari-kano eta M. Amuriza bertso-lariekin. Arratsaldean eta gaez dantzaldia Modesto soinulariarekin. 00:00etan Gaixoa ni beste bukaera emanez.



Aurten ere dantzariak ariko dira eta aizkorak lekua izanen du. ARANTXA ITURRALDE



Zurgin lanak orokorrean
Ongi pasa bestak!
Arkamendi Parajea
Beintza-Labaien
T. 948 920 960 | 608 970 819
arkamendi@gmail.com | www.arkamendi.com



ORBELA
SENDERISMOA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Ongi pasa bestak!
T. 948 450 014 | BEINTZA-LABAIEN | info@orbela-beintza.com | www.orbela-beintza.com



Besta onak
opa dizkie
herritar
eta bisitari
guztiei



LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826



744 484 361
ttipi-ttapa



Noruegako itsas-bidaian ibili dira elkarteko kideak. UTZITAKO ARGAZKIA

Mediterraneoko itsas-bidaiaz, bilkura abuztuaren 7an

Abuztuan batzuek Benidorm eta Lezo eta bertzeek Arantzazu bisitatuko dute

F. ETXEBERRIA

Elkarteko hainbat kide Noruegako itsas-bidaian ibili dira. Madrilera joan ziren autobusez eta ondotik, Rostock-era hegazkinez. Eguraldi onalagun, bost egunez hainbat toki bisitatzeko aukera izan zuten.

Itsas-bidaia batetik bueltatu orduko, bestera begira hasiak dira. Prestaketetan hasiak dira, eta abuztuaren 7an, asteazkenean, guztia lotzeko eta zalantzak argitzeko bilkura izanen dute. Elkarteak Donezteben duen egoitzan dute hitzordua, 11:00etan. Guztira 61 lagunek eman dute izena,

eta denei egin zaie bileran parte hartzeko deia. Eroski Bidaiak agentziako arduradunak azalpenak emanen ditu: bai Bartzelonarako autobusaz, bai itsasontziko jardueri buruz, bai eta ateraldiei dagozkienak ere.

Bidaia gehiago

228 bazkide Aralar eta Gorraizen ospatuko duten Aitaxi-Amatxien Egutera joatekoak ziren. Abuztuan, berriz, batzuek Benidorm eta Lezo eta bertzeek Arantzazu bisitatuko dute. Azaroan Kanarietarako noranzkoa hartuko dute.



Mendi-irteerak izan dituzte hizpide bilkuran. UTZITAKO ARGAZKIA

Laster aurkeztuko dituzte heldu den urteko mendi-irteerak

Uztailaren 31n Petretxemara joatekoak dira eta izen-emate kopuruaren arabera autobusa paratzeko asmoa dute

F. ETXEBERRIA

Uztailaren 3an, batetik, Mendi irteera Batzordea (Teresita Nazabal, Pablo Irastorza, Jose Mari Zabaleta eta Ramon Tapia); eta bertzetik, Zuzendaritza Batzordea (Gema Gamio, Jose Luis Legarra, Juan Isaac Alzugarai eta Fernando Etxeberria) bildu ziren, heldu den urteko mendi irteerez solastatzeko helburuz.

Hainbat aukera bildu zituzten eta orain, bileran aipaturikoak gainerako bazkideekin adostekoak dituzte. Hori egiten dutelarik, hurrengo urterako antolaturiko irteerak,

datak eta ordutegiak zehaztuko dituzte.

Gisa bertsuan, Ramon Tapiak Petretxemara, Ansoko ibarrean kokatua den eta Erdialdeko Piriniotan dagoen mendira, joateko proposamena luzatu zuen eta irteera laster egitekoa dute. Heldu den asteartean, uztailaren 31n joanen dira. Izen-emate kopuruaren arabera, autobusa ere paratzeko asmoa dute, joan-etorria kezkarik gabe egin dezaten. Hala izatekotan, Doneztebetik abiatuko da, 05:45ean eta Linzan bazkalduta, arratsaldean itzuliko dira.

Urtetan Saldiasko ordezkaria izandako Jose Urrutia hil da

F. ETXEBERRIA

Joan den uztailaren 8an, 97 urte zituela, hil zen Saldiasko Koskorrenea baserriko Jose Urrutia. Arkupeak elkartearen sorreratik 2017ko abendura bitarte elkarteko ordezkari izan zen eta ordutik, Martin anaia dituen elkarteko orde-

kariari dagozkion ardurak. Zortzi anai-arrebetan bigarrena zen Jose, Maria Mikaela Aicegaren senarra. Sei seme-alaba izan zituzten.

Eskerrak

Lerro hauen bidez, Arkupeak elkarteak Urrutiak borondatez



Jose Urrutia zena. UTZITAKO ARGAZKIA

egindako lana eskertu nahi izan du. Hala, esker on gisa, elkarteko lehendakaria eta idazkaria familiakideei doluminak ematera joan zitzaizkien. Era berean, biharamunean Saldiasko elizan egin zen hileta elizkizunean kide askok hartu zuten parte.

Familiakoek ere, momentu horietan Arkupeak elkarteak eskainiriko babesa eskertu nahi izan dute.

'Zuk aukeratu, zuk dantza egin' lehiaketa abian da

Lanak hilaren 31ra bitarte bidal daitezke eta sariak Goizuetako festetan banatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Goizueta eta Aranoko Prebentzio eta Berdintasun Batzordeak 'Zuk aukeratu, zuk dantza egin' lehiaketa antolatu du hirugarren urtez. Lehiaketak denen artean festetan entzun nahi dituzten abestiak aukeratuz bilketa bat egitea du helburu. «Dibertigarriak, dantzatzeko modukoak eta giro ona sortzen dutenak, ez erasotzaileak» hautatzeko eskara egin dute. Edonork parte har dezake, nahi beste kanta bidaliz. Abesti guztiak bilduz *pendrive* edo CD bat egingen dute, eta tabernari guztiei emanen zaie, festetan jartzeko eskatuz.

Parte hartzeko

Uztailaren 31ra arte bidal daitezke, Whatsappez 681 265188 telefonora idatziz; Laga Gizarte Zerbitzua Facebookera idatziz; edo Twitter bidez (Laga Gizarte Zerb). Mezuan honako datuok bildu behar dira: parte-hartzailearen izena eta kontaktua, abestia eta abeslaria edo taldea. Nahi izatera, abestia bera ere bidal daiteke.

Kepa Junkera eta sorginak emanaldia irailaren 7an Leitzan

Nafarroako Gobernuaren Kultur programaren harira, irailaren 7an, ostiralean, Kepa Junkera eta sorginen emanaldia izanen da plazan, 20:00etan. Azken lana, *Maletak*, aurkeztuko dute: trikitixak gordetzeko kaxak protagonista diren 17 kantez osatutako lana.



Giro ederra sortzea dute helburu.

Sariak

Hiru sari banatuko dituzte: lehendabizikoari 90 euroko balioa duten kontzertu baterako sarrerak emanen dizkio, bigarren eta hirugarrenari, berriz, 30 euroko erosketaxartela. Liburu-denda batean gastatzeko izanen da.

Sari-banaketa abuztuan, Goizuetako festetan, egingen dute. Hala ere, antolatzaileek posta elektronikoki edo telefono bidez jakinaraziko dute nor izan den. Antolatzaileek parte hartzeko deia luzatu nahi izan dute: «festetan giro polita sortzeko, dantza egiteko, ongi pasatzeko... musika behar dugu. Animatu, parte hartu eta zure aukera bidali» gaineratu dute.

Bertso afaria Leitzako igerilekuan uztailaren 27an

Uztailaren 27rako, ostiralera, bertso-afaria antolatu dute Leitzako udal igerilekuan. Saats Karasatorre, Ander Fuentes *Itturri*, Iñigo Gorosterrazu *Etxorde* eta Diego Riaño ariko dira kantari eta afarira joateko sarrerak aurrez erosi beharko dira, 25 eurotan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Euriak ez zuen festa itzali

100 lagun bildu ziren Karmen bezperan herriko etxeko gorapean egin zuten afarian. Zazpi tortilla dastatu zituzten Aitor eta Jon epaileek. Josu Garmendiak irabazi zuen, eta bertsoz eskertu zuen jasotako saria. Bigarren postua, berriz, Danielarentzat izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Aterpeko gaztetxoak Arizti baserrian

25 laguneko talde bat aterpean izan da uztailean. Herriko hainbat txokotan ibiltzeaz gainera Arizti baserriko Mari Jose Zabalaren eskutik, animaliez gozatzeko aukera izan dute gaztetxoek. Argazkiek ederki islatzen dutenez, gustura egon dira animalia artean.



Osasun kontseiluan jorratu dute gaia. UTZITAKO ARGAZKIA

Leitzako osasun etxean pediatriarik gabe daude

Leitzar, goizuetar, aranoar eta aresoar gurasoak sinadurak biltzen hasiak dira

TTIPI-TTAPA

Leitzarrek ez ezik, goizuetarrek, aranoarrek eta aresoarrek ere zerbitzua bertan jasotzen zutela aintzat harturik, Leitzaldeko herritarrek egoera salatu nahi izan dute. Leitzako Udaleko osasun kontseiluak garbi adierazi du: «arazoa larria da, eta herritar gisa pediatria izateko dugun eskubidea urratzen ari da. Irtenbide bat bilatu artean horretan jarraituko dugu».

Urduritasuna herrian

Orain artean zegoen pediatriak Irurtzungo plaza hartu zuen. Orduetik, astean lau arratsalde Leitzako osasun etxean zerbitzua eskainiz jarraitu zuen. Ekainaz geroztik, ordea, «astean bitan» baino ez da joaten. Hori horrela, herritarrak, oro har, eta gurasoak bereziki, «urduri» daude, ordezkoi pediatria baten «beharra» dute herrian.

Osasun kontseiluan lanean

Osasunbidera jo dute, irtenbide bila. Baina bertan azaldu dietenaren arabera, pediatriarik ez dago. Dauden gutxiak

bitartekoak dira, behin-betiko lanposturik ez dutenak; eta horiek ez daude eskaintako plaza hartzera derrigortuak. Osasun kontseilutik pediatrika daudenean lehentasuna Leitzako egoerari emanen dietela adierazi badute ere, horrek ez du lasaitasunik eragin: «ezin dugu horrela jarraitu».

Bien bitartean medikuak dira haurren beharrak asebetetzen ari direnak: «eta horrek ere lan zama handia eragiten die, dena gainezka doa» adierazi dute. Irailean ez bada urrian beste kontseilu bat egiteko asmoa dute.

Gurasoak sinadurak biltzen

Goizuetako eta Aranoko gurasoek «oinarrizko pediatria zerbitzua, astean behinekoa» eskatu dute eta sinadurak biltzen aritu dira. Goizuetan, esaterako, 323 sinadura bildu dituzte; Aranon, berriz, 37. Aresoarrek Leitzako osasun etxean «pediatria egunero izatea» eskatzen dute; eta Leitzan ere badute asmoa, laster ekinen diote bilketari. Argi dute: «lortu arte borrokan jarraituko dugu».

Emakumeen parte-hartzea aztertzeko beka deialdia egin dute

TTIPI-TTAPA

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Goizueta eta Aranoko emakumeen parte-hartzea aztertzeko beka deialdia egin du. Pertsonen eta mugimenduen bizipenak testigantza jaso nahi ditu; bizipen horiek berdintasunerantz emandako pauso eta lorpenak ondorengo belaunaldiak partekatze baliagarriak izanen direlakoan. Hala, bekaren helburua XX.mendearen bigarren erditik egunera bitarte Goizueta eta Aranon parte-hartze arloan egin duten lanaren oroimena berreskuratu eta berdintasunaren alde egin dutenei aitortza egitea da.

Nondik norakoak

Ikerlana euskara ez-sexista erabiliz idatzi beharko da (60-200 orrialdetan), eta, besteak

beste, ondorengo langaiak bildu beharko ditu: emakumeek eremu publikoan izan duten papera; ohituren transmisio eta bilakaeran jokatu duten papera; egitekoen eta generoen arteko harremanen bilakaera; parte-hartzea herrigintzan; eta parte-hartzea lan produktiboan. Bekaren irabazleak 4.200 euro jasoko ditu eta bost hilabeteko iraupena izanen du beka.

Baldintzak

Adinez nagusia den eta euskarazko C1a (EGA edo balio-kidea) duen edonork eskatu ahal izanen du. Gehienez hiru pertsona osatutako taldeak onartuko dira (baldintzak guztiek bete behar dituzte). Eskarak aurkezteko epea deialdia agitaratzen den unetik 15 eguneko izanen da.



Goizuetatik igerilekuko bestara joateko autobusa jarriko dute. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak abuztuaren 3rako Ur festa antolatu du

TTIPI-TTAPA

12-16 urteko gaztetxoei zuzenduta, Leitzako, Goizuetako, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Leitzako kiroldegia, Leitzako Udala, Gozamenezko koordinadora eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, Ur festa antolatu du. Abuztuaren 3an,

ostiralean, 22:00etan hasiko da alkoholik gabeko festa, Leitzako igerilekuan eta lagun arteko harremanez gozatzea izanen dute helburu. Aurten Amelie ipuin-kontalariaren eskutik, 'Kilimak' ipuinaz gozatzeko aukera izanen dute. Sartzeko bi euro ordaindu beharko dira.

Pediatria zerbitzu duina eskatzeko sinadurak biltzen

Sastinean dago sinadurak biltzeko orria eta abuztu bukaerara arte sina daiteke

TTIPI-TTAPA

Leitzaldeko pediatria zerbitzuan izandako aldaketek ezinegon eta kezka sortu dute gurasoen artean. Gaia landu ondoren, egoera aldatzeko zerbaite egitea «beharrezkoa» dela ikusi dute eta pediatria zerbitzu «duina» eskatuz sinadurak biltzen hasi dira. Sinadurak, irailean edo urrian, Leitzan egitekoa den Osasun Kontseiluan aurkezteko asmoa dute.

Azterza pausorik ez

Ordezko pediatriarrik jarri ezean, asteen bitan emango dute zerbitzua: «hori ez da aski. Behin-behineko neurriak dira guztiak baina, noiz arte? Egoera hau onartzea atzera pausok ematea litzateke». Argi dute, «ezin gaitezke agenda itxi baten menpe egon, gaixotasuna

bat-batean dator. Gaur, bihar edo etzi. Hori ez da programatzen. Ezin da hitzordua aurrez hartu. Eta gure seme-alabak gaixotzen direnean pediatriarrik ez badago, zer?».

Herritarren parte-hartzea

Egoera salatu eta berehala irtenbide bat eskatzeko helburuz, sinadurak biltzen hasi dira: «herritarrak sinatzera animatu nahi ditugu, pediatria izatea oinarritzko eskubidea da». Nahi duenak Sastinean ditu eskuragarri orriak, abuztu bukaerara arte.

«HERRITARRAK SINATZERA ANIMATU NAHI DITUGU»




UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako txapela berriro ere herrira

Ez da esku hutsik etorri Itxaso Onsalo Iruñeko sanferminetatik. Astiasaranekin bikote osatuta Nafarroako Arpana txapelketa irabazi zuen uztailearen 8an. Bost minutu baino gutxiago behar izan zituzten etzanda jarritako 45 ontzako enborrari hamar epai emateko. Zorionak bikote!

Indusketak egingo dituzte Ulizarren abuztuaren

Abuztuaren 6aren bueltan, eguraldiaren arabera, bizpahiru egunez indusketak egingo dituzte Ulizarren. Aranzadiko Alfredo Moraza izango da lanen arduraduna eta Burdina Taldekoak bertan izango dira. Data finakoak jakindakoa ohar bat bidaliko dute Udaletik.



XABIER LEGARRETA

Udaleku irekietan dabilta herriko gaztetxoak

Abuztuaren 3ra bitarte Udalak, Kirol Mankomunitatearekin elkarlanean, antolatutako udaleku irekietan dabilta gaztetxoak. Uztailearen 9an hasi zituzten eta egunero bi orduz, 11:00etatik 13:00etara bitarte, biltzen dira. Giro ederra izaten dute neska-mutilek!

Herriko gaztetxoek kontzertua abuztuaren 18an

Pesten baitan, herriko gaztetxo musikarien kontzertuaz gozatzeko aukera izango da. Herritarren egunean, abuztuaren 18an, Alur dantza taldearen ondotik izango da saioa. Gitarrak, bateriak... astintzeko gogoz omen daude! Pestak bukatzeko modu ederra!

Herriko internet zerbitzuan moldaketak

Uztail erdialdean herriko internet zerbitzuaren kalitatea hobetzeko zenbait moldaketa egingo aritu dira. Hori horrela, orain sistemaren errebisioa egingo ari dira eta dena ongi dagoela baieztatu ahal izateko etxeko etxeko teknikari bat dabil.

Pala txapelketa jokatu dute uztailean herrian

Berriki margotutako frontoia- ren inaugurazio gisa, pala txapelketa jokatu dute uztailean herrian. Hilaren 14an eta 15eko asteburuan jokatu ziren partidak, eta 22an, herriko festen atarian, jokatzekoa zuten finala. Guztira 16 bikotek hartu zuten parte, eta giro ederra izan zuten neska-mutilek. Txapelketa bukatuagatik ere, badute gozamenik herrian. Besta giroan murgilduta daude dagoeneko eta asteburuan ere izanen dute non gozatua. Xehetasunak nahi izatekotan ikus. 714. zenbakia.

Uztailearen 29an XIV. FERIA EGUNA izanen dute

Herriko festen harira, uztailearen 29an, datorren igandean, XIV. FERIA EGUNA izanen dute herrian. Ferian parte hartzeko deia egin dute antolatzaileek, bi aukera proposatuz. Batetik, patata tortilla lehiaketan parte hartzera animatu nahi izan dituzte; eta bestetik, nahi duenak etxeko jaki edo artisau produktuekin postu bat jar dezakeela gogorarazi dute. Postua jarri nahi dutenen kasuan Festa Batzordeko kideren bati, tokia gordetzeko, jakinarazi behar zaiola gogorarazi dute.

Aroztegiak eragiten dituen parajeetan barna ibilbideak

Diptikoetan bildurik turismo bulego, landetxe eta ostatueta, baita webgunean ere bisitarien eskura jarri dituzte

TTIPI-TTAPA

Aroztegia... eta gero zer? herri plataformak Aroztegiako proiektuak Baztango parajeak «kaltetuko» dituela iritzita, horiek ezagutzeko ibilbideak egin ditu eta bertaratzen direnei ibilbide horiek ezagutzeko gonbita egin nahi izan die.

Plataformako kideek «base-ri, jauregi, belai berdeetan bazkatzen diren behi, ardi eta larre pottokak, paisaia; baztandarren mintzo xaloa; eta Batzar Nagusia eta herrietako batzarrak, antolamendu instituzional zaharra» nabarmendu nahi izan dituzte, «jakinmin berezia sortzen duen» bailararen «bereizgarriak» azpimarratu nahi izan dituzte.

Horrela, «ohiturez marraztutako margolanaren gibelean eguneroko problematika» nagusitzen dela adierazi nahi izan dute: «base-ri eta jauregiak ederrak dira arras baina Baztanen 800 etxe huts baino gehiago ditugu». Horren aitzinean Palacio de Aroztegia SLren proiektua gaitzetsi dute: «228 familia bakarreko etxebizitza egin nahi ditu. Gure

belai berdeak ez dira paisaia basati hutsak, baizik nekazalgoak lurrearekiko duen harremanaren ondorio. Egunetik egunera adinez zaharragoa den nekazalgoa, beti egitasmotxikitzaileen mehatxupean dagoena».

Gisa bertsuan, proiektuak «baztandarren mintzo xaloa kaltetuko duela» uste dute: «gaur den egunean oraino goxoki zaindu behar dugun ondare hauskorra, zenbait ikerketen arabera proiektu honek anitz kaltetuko lukeen ondarea». Nafarroako Gobernuak «UGPSaren bitartez» Batzar Nagusiari eskumenak kendu dizkiola salatu nahi izan dute: «baztandarren erabakitzeko tresna ebatsiaz».

Hori guztiagatik, «parajeak ezagutzeko, parajeaz gozatu eta atsalde pasa goxo bat egiteko, gure hamaika borroketako baten zergatia ulertzeko», ibilaldiak antolatu dituzte. Diptikoetan bildurik turismo bulego eta landetxe eta ostatueta, baita *aroztegiaetage.rozer.eus* webgunean jarri dituzte.



MADDI BARBER GUTIERREZ

Piriniotar behi arraza argazki lehiaketa

Piriniotar behi arraza eta bere ingurua argazki lehiaketa egin dute bigarren aldiz. 400 euroko lehen saria Saraguetako Maddi Barber Gutierrezek irabazi du. Gainera, udazkenean Elizondon ospatuko den Behi-azienda lehiaketa enkante nazionalaren 31. edizioko kartelean eta eskuorriko azalean agertuko da argazkia. 200 euroko bigarren saria Soralezeko Carlos De Cos Azkonak irabazi du eta 100 euroko hirugarren saria Iruñeko Alfonso Guinea Fernandezek. 41 egilek 111 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara eta uztailaren 5ean jakinarazi zituzten saridunak.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRATEGIA DE TURISMO

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

JOSEPHINE'S ENGLISH
Bertako irakasleak

2018-2019. IKASTURTEKO KLASE PARTIKULARRAK:
Lehen hezkuntzako 4. mailatik goiti, DBH,
Batxilergoa eta helduak

IKASTURTE HASIERA: IRAILAK 3

Josephine Etcheverry eta Christina Irigoyen
948 453 453

LOKAL BERRIA:
Santiago, 38 Elizondo



Baztango ordezkari zabalak, Jakako elikagai-enpresen haztegia. UTZITAKOIA

Tokiko elikadura kontseilua sortzea erabaki du Udalak

EH Bilduren proposamena aho batez onartu zuten ereiarioaren 27ko osoko bilkuran

TTIPI-TTAPA

Ereiarioaren 27an egindako bilkuran, Udalak tokiko elikadura kontseilua osatzeko EH Bilduren proposamena aho batez onartu zuen. Elikadura kontseilua tokiko elikadura sisteman parte hartzen duten eragileen bilgunea izan da, elikaduraren alderdi soziala, ekonomikoa eta ingurugiro aldekoak kontuan hartuz. Modu berean, tokiko elikadura sistema bulkatzeko ekimenak sustatuko ditu, elikadura sistema iraunkorra eta sozialki bidezkoa bidez tokiko ekonomiaren garapena bulkatzeko. Bidean, tokiko elikadura sistemari buruzko informazioa bildu, sintetizatu eta elkarbanatuko du. Aipatu kontseilua osatzeko proposamena, Baztanen egiten ari denari batasuna emateko beharrak sorturik heldu da.

Izan ere, elikaduraren ikuspegi sistemikotik azkeneko urteetan hainbat gauza egiten ari baitira Baztanen: komunalak kudeatzeko ordenantza berria, hiltegiko zatitzeko gela, nekazaritza azpiegiturak, udaberriko ferieraren sasoiko lehen gasnaren mozketak, haur eskolako sukaldetako baldintza berriak, eskoletako jangeletako azterketa, *Zer jan, halako Baztan* kanpaina, Agroekologia eskola herritarren egitarau zabala, Baztango Zaporeak-en sorrera, Elbeteko ostatuak erdietsitako *slow food* saria eta bertako gasnagileek eskuratutakoak, elikagai-bankua, etxeko otordu zerbitzua, Iruritako baratze hezitzailea, Baztandarren Biltzarreko bazkarian bertako aratzea zerbitzatzea... Zerrenda luzea izanda, Baztanen egiten diren jarduerak bateratzeko, ikus-

pegi sistemikoa lantzeko eta elikaduraren gaiak bailarako garapen sozioekonomiko eta soziokulturalean duen garrantzia erakusteko, tokiko elikadura sistema landuz ekonomia eta enplegua, osasuna eta ingurugiroa, kohesio soziala lantzeko eta bertze asmoekin sortuko da kontseilua. Udaleko ordezkari eta teknikoez gain, Baztango eragile sindikal eta sozialean parte-hartzeko zabalak aurreikusi dute.

Jakarat bisita

Baztanen elikagaien eraldaketa bulkatzeko eta horrela lehendabiziko sektoreari aukera berriak emateko eta tokiko nekazaritzako elikagaien industria indartzeko, bailarako hainbat ordezkari Jakarat joan ziren, Adecuara landa garapen elkarteak egindako elikagai-enpresen haztegia ezagutzeko. Jakako haztegia 2016tik abian da eta eraldaketarako hiru gela ditu: haragietarako obradorea, mermeladak eta postregintzako gela eta aitzinetik prestatutako otorduetarako tokia.

Horrela, jarduera ekonomiko berriak hasi nahi dituzten eskurari eta interesdunen eskura uzten da azpiegitura hori, inbertsio handirik egin gabe, buruan dituzten negozio ideiak saiatzeko. Azpiegitura erabiltzaileen artean elkarbanatzen dute, horretarako egutegia eta ordutegia finkatuz; gehienez lau urtez erabiltzeko eskubidea dute, epe horren ondoren, proiektuarekin aitzinerat segitzeko edo dena bere horretan uzteko erabakia hartu beharra dute.

Baztanen aspaldi dabilta horrelako ideiarekin, horregatik, ordezkari zabalak hurbildu zen harat.

Aukeran dantza konpainiaren 'Fusioak' Elizondon

Kultur 2018 programaren baitan, Aukeran Dantza Konpainiak, Edu Muruamendiarazzen zuzendaritzapean, *Fusioak* ikuskizuna aurkezteko du abuztuaren 3an, 20:30ean Elizondoko plazan. Euskal dantzaren erritmo, soinu eta osagaien eta nazioarteko bertze folkloren arteko fusioa egiten du; ikuskizun harrigarri, berriak eta berezi bat. Ordubeteko ikuskizun bat jende guztiarentzat; kalitate plastiko handia du, hainbat lurraldetako elementuekin, eta, ororen gainetik, ikusleak hunkiarazteko sortu eta pentsatuta dago.

Aisialdiko hezitzaile lanpostuak eskaini ditu Larunblaiak

Udalak eta Euskaltzaleen Topaguneak antolaturik, heldu den urritik aitzinera Baztanen *Larunblai* aisialdi egitasmoa hasiko da berriro. *Larunblai* aisialdi programa da, ikasturte osoan luzatzen dena eta haur nahiz gaztetxoak lagunartean euskaraz aritzeko talde iraunkorrak sortzea helburu duena. Larunbat arratsaldeetan bi orduko saioak egiten dira Oronozen, bi asteetan behin. Horretarako hezitzaileak behar dituzte eta interesa duen gazte orok bere burua aurkez dezake. Curriculumak abuztuaren 13tik abuztuaren 24ra aurkez daitezke Baztango Euskara Zerbitzuan. Hileko zazpi lanorduko kontratua eskainiko zaie aukeratuei 2018ko irailaren 14tik 2019ko ekainaren 14a arte.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatuak



Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

MARMOLES
SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

Zigako San Lorenzo bestak abuztuaren 9tik 13ra prest

Egun handian Mexikortxo mariatxiak izanen dituzte eta hondarreko egunean, zikiro jatea

TTIPI-TTAPA

Bortz eguneko San Lorenzo besta dotoreak prestatu dituzte aurten ere Zigako, denek ongi pasatzeko modukoak.

ABUZTUAK 9, ORTZEGUNA BEZPERA

20:00etan txupinazoa eta ezkil jotzea,
20:1ean herriko trikitilariak herrian barna.
21:00etan Baztan-zopak.
00:00etan dantzaldia Salaberrirekin.

ABUZTUAK 10, ORTZIRALEA SAN LORENZO EGUNA

10:00etan dianak herriko trikitilariekin.
11:00etan Meza Nagusia.
12:00etan luntxa plazan.
19:00etan Mexikortxo mariatxiak.
20:00etan dantzaldia Hauspolariek taldearekin, ondotik joaldunak eta txalaparta.
22:30ean xingar jatea.

ABUZTUAK 11, LARUNBATA GAZTE EGUNA

10:00etan dianak herriko trikitilariekin.

14:00etan herri-bazkaria.

20:00etan Gabenara taldearekin dantzaldia.

22:00etan herri-afaria.

00:00etan Gabenara taldearekin dantzaldia.

(Gan-torri autobusa ibiliko da herriz-herri).

ABUZTUAK 12, IGANDEA HAURREN EGUNA

10:00etan dianak herriko trikitilariekin.
11:00etan haurrentako jokoak.
14:00etan haurren bazkaria.
17:00etan puzgarriak.
17:30ean mus txapelketa.
19:00etan txokolatada.
20:00etan Frantziskorekin dantzaldia.

ABUZTUAK 13, ASTELEHENA ZIKIRO JATEA

10:00etan dianak herriko trikitilariekin.
11:30ean haurren frontenis txapelketa.
14:00etan zikiro jatea.
20:00etan dantzaldia Beñatekin.
23:00etan xingar jatea.
00:00etan Gaixoa Ni eta dantzaldia Beñatekin.



Musean, zikiroko Baztan-zopak zukutzen eta bestetako blusarekin. UTZIITAKOAK

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN





Udalak onartutako plan berriak, Ikaburu nahiz Alkerdi babesteaz gain, ez du harrobi berririk baimenduko. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Marmoles Baztan enpresak 150.000 euro zor ditio Udalari

Ikaburu nahiz Alkerdiko harrobien inguruak babestuak izanen dira ekainean onartutako Udal Planaren aldaketarekin

IÑIGO IMAZ

2014ko uztailean Marmoles Baztan enpresak ustiatzen zuen Alkerdiko harrobian gertaturiko eztanda batek izua eta kezka sortu zituen, izan ere, hainbat etxe dardaratu egin ziren leherketaren eraginez. Ondorioz, hainbat protesta eta ekimen antolatuta ziren harrobiaren ustiapenean egin ziren aldaketak salatzen.

Alkerdiko harrobiaren ustiapena aspaldikoa da. Nafarroako Gobernuak babestuak zituen Alkerdi nahiz Berroberriako lezeak. 1999ko Plan Orokorrean, Udalak harrobien

ustiapen gunean zeuden Zelaietako lezeak ere babesteko neurriak paratu zituen. 2003an, Herriko Etxeak lizentzia municipalak eman zion Marmoles Baztan enpresari. 2006ra arte, urtero enpresak Udalak ezarritako baldintza zorrotzak bete zituen, batez ere dardarek babesturiko lezeetan izan zitzaizketen eraginaren gaineko txostenak aurkeztuz herriko agintariei.

Bi urte luzez geldirik egin ondotik, 2013an Nafarroako Gobernuak ustiapen teknika berriak eta lan esparru zabalago bat baimendu zion en-

presari. Protestak, ekimenak eta mobilizazioak biderkatzen joan ziren eta, azkenik, Herriko Etxeak isuna ezartzeko espedienteak ireki zizkion enpresari. 2016ko irailean, Nafarroako Gobernu berriak Alkerdiko babesgunea zabaldu eta Interes Kulturalako Ondare izendatzeko erabakia hartu zuen. 2015ean Udalak irekitako espediente berrien ondorioz, Marmoles Baztan enpresari isunak ezarri zitzaizkion, baina Udalak ez zituen isunak kobratu nahi izan errekurtsio guztiak bukatu bitartean. Urdazubi Elgarrekin taldearen iritzi, arriskutsua zen hori, izan ere Marmoles Baztan ERE egoeran sartzekotan zailagoa izanen baitzen isunak kobratzea.

Epaiketak eta helegite eta administrazioarekiko auzi-errekurtsio guztiak argitu dira 2018an. Azkenak maiatzean. Batean, Interes Kulturalako Ondare izendatzeko erabakiaren kontra egindako auzi-

errekurtsioa galdu du enpresak Nafarroako Gobernuaren nahiz Udalaren kontra. Bigarrenean, Udalak ezarri zion isun urbanistikoa errekurritu zuen Marmoles Baztanek, eta epaiak Udalari eman dio arrazoia. Isunaz aparte, 2017an ingurugiro arloan izandako arauhausteagatik ezarritako isunaren kontrako auzi-errekurtsioan epaileek arrazoia eman zioten Urdazubiri.

Enpresak ingurugiro nahiz hirigintza arloko isunak ordaindu behar dizkio Udalari. Guztira, interesak atxikituta, 150.000 euro zor ditu enpresak, baina likidazio fasean dagoenez, orain arte soilik 824 euro kobratu ditu Udalak. Seguruenik beranduegi izanen da kopuru hori guztia kobratzeko.

Plan Orokorren aldatzea

Ekainean, Udalak abian jarri zuen Plan Orokorra aldatzeko prozesua, harrobi nahiz lezei dagokionean. Aldaketa horien ondorioz, Ikaburu nahiz Alkerdiko harrobien guneak babestuak izanen dira. Ekainean udal batzarrean aho batez erabaki zen Udal Planaren aldaketa egituratzailearen aldaketa. Onspen hori, hasierakoa da oraindik, helegiteak egiteko fasean Urmeneta arkitektoak aurkezturiko txostena onartu zelarik. Aurrerantzean, herrian ez da harrobi berririk baimenduko prozesu hau akitzen denean eta behin betiko onarpena gauzatzen denean.

Burdin Egunaren hamaikagarren edizioa abuztuaren 11n ospatuko dute

TTIPI-TTAPA

XI. Burdin Eguna agorriaren 11n ospatuko dute. Ohikoa denez, burdin minerala idigurdietan garraiatzen zeneko ibilbidea antzeztuko dute. Izan ere, meatzeetatik monasteriora eramaten zuten, eta abadeari ematen zioten, urrezko

txanpon batzuen truke. Gainera, bertze ekitaldiak ere izanen dira.

Egitaraua

10:00etan Artisautza azoka eta haurrendako jokoak.
12:00etan burdin minerala kargatuak dauden orgak aile-



Idiak, burdin minerala garraio.

gatuko dira monastegira. Burdina urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia.

13:15ean Zentro Kulturalan Ricardo Santamariak *Enkateritik Urdazubirat, burniaren mineralaren ibilbidea* hitzaldia eskainiko du.

14:30ean Zikiro jatea herri bazkaria (Mechoui).

16:00etan Bankako Menditarak taldearen kantaldia eta mariatxiak.



Mara abeslariak Portugaleko musika bertze batzuekin nahasten du. UTZITAKOIA

Mara portugaldarrak kontzertua emanen du abuztuaren 23an

Kultur 2018 programazioaren baitan eskainiko du emanaldia eta museora eta lezera bisita gidatuak ere izanen dira

JOSEBIÑE ETA KORO

Uda honetarako Museotik antolatutako ekitaldietatik Mararen kantaldia dugu azpimarragarriena. Kantari honek fado estiloaz gain, Portugalgo bertze musika batzuk ere eskaintzen ditu. Emanaldia abuztuaren 23an da, ortzegunarekin, 18:00etan lezean, eta sarrera arruntarekin kantaldia urririk da. Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak antolatutako Kultur 2018 programaren baitan eskainiko du kontzertua.

Mara musika portugaldarraren azken ezustekoetako bat da. Iaz, Espainiako eta Euskal Herriko entzuleria konkistatu zuen, zenbait jaialditan (Caceresko Womad jaialdia edo Getxo Folk jaialdia) eta hiritan edo herrialdetan (Valentzia, Burgos, Cuenca, Ciudad Real edo Errioxa), eta, orain lehen aldiz aurkeztuko du Nafarroan *Folha do rosto* disko txalotua.

Mara ez da fado hutsa, ez da Alenteixoko kantagintza hutsa, ezta folk hutsa ere. Musika portugaldarra da, baina flamenkoarekin eta jazzarekin ere egiten ditu maite-jolasak; saudadez eta sentimenduz betetako leku eta istorioetara eramaten gaituen ahots bikaina.

Egun berean, lezera eta Sorgingen Museora bisita gidatua eskainiko dute. Sarrera 4,50 euro ordaindu beharko da. Erreserbak 948 599004 telefonoan edo info@zugarramurdi.eus helbidean.

Bertze ekitaldiak

Emanaldi honetaz gainera, antolatutako bertze ekitaldiak hauek dira:

- Bisita gidatuak herrian zehar: uztailaren 26an eta 28an, 17:00etan (bortz euro helduek eta hiru euro haurrek).

- Pelikula baten grabaketan parte-hartzea: abuztuaren 5ean eta 12an, eta irailaren 9an, 11:00etan (10 euro).

Artziniegako museora irteera antolatu du antzerki taldeak irailaren 1erako

JOSEBIÑE ETA KORO

Antzerki taldekoek irteera polit bat antolatu dute irailaren 1erako (larunbata): Arabako Artziniega herrira. Euskal Herriaren Erdi Aroan emakumeek janzen zituzten ttunturo deigarriak egiten dituzte herri huntan, eta hauen erakusketak bisitatuko da. Horretaz gain, Artziniengan dagoen etnografia museoa ere ezagutzeko aukera izanen da.

Hori guztia, autobusa eta bazkaria, 30 euroren truke eskaintzen dute antzerki taldekoek. Izena emateko 670 30



Ttuntturroen erakusketa Artziniengan.

54 41 telefonorat deitu behar da.



JOSEBIÑE ETA KORO

Itxura ederra hartu du Teletxeak

Hilabete batzuk berritze lanetan aritu ondotik, itxura ederra hartu du Beheitiko karrikako Teletxeak. Teletxea aspaldikoa dugu, 1609ko agiri batzuetan aipatzen baita Inkisizioko zerrendetan Teletxeako Juana preso hartu zutela. 38 urteko emakumea zen, eta Logroñon preso atxiki zuten.



Joan den urtean bigarren gelditu zen Pantxo Saint Martin. PIERRE EZCURRA

Kontrabandisten Lasterketa egun osoko egitarauarekin

Abuztuaren 26an haur eta helduendako lasterketak antolatu ditu Sara Korrikak

TTIPI-TTAPA

Heldu den abuztuaren 26an egingen da Kontrabandisten Lasterketaren 55. edizioa. Herriko Etxearen laguntzarekin, Sara Korrikak, egun osorako ekitaldiak antolatu ditu. 10:00etan sortzaileen merkata zabalduko dute plazan. Horrez gain, haurrek pottoka gainean plazan itzuliak egiteko aukera izanen dute. Eguerdian, musika eta dantza izanen dira: txalapartariak, albokariak, muxikoak... Olhain Ikastolak, bere aldetik, taloak egin eta ostatua paratuko du.

16:00etan, aizkolari eta harri-altxatzaileekin, herri-kirol erakustaldia prestatu dute eta horren ondotik, lasterketen txanda izanen da.

Haur eta helduen lasterketak

17:00etan, Kontrabandista Ttiki haurrendako lasterketa hasiko da. Adinaren arabera, bi multzotan bereiziko dituzte haurrak: 2007 eta 2012 urteen artean sortutakoak alde bateatik, eta 2007a baino lehen sortuak bertetik. Plaza inguruan egingen dute beraien itzulia eta joaldunak izanen

dira gaztetxoek lasterketa irekiko dutenak.

Helduen lasterketa, berriz, 18:00etan abiatuko da plaza-tik eta 8,4 kilometroko ibilbidean, Zazpi Fago izanen da punturik altuena. Ohi bezala, 36 parte-hartzaile onartuko dituzte gehienez, Herriko Etxeak gomitatuko dituen 18 herrietakoak.

Bertzalde, lasterketako lehenbiziko kilometro eta erdian eta hondar metroetan zakua bizkarrean eraman beharko dute korrikalariak, zortzi kiloko gizasemeek eta laukoa emakumeek. Horrez gain, lasterketan parte hartzeko, bai haurrek eta bai helduek ere, kamiseta zuria eta galtza urdin luzeak jantzi beharko dituzte.

Izen-ematea

Herriko Etxeak gomita luzatu ondotik, parte hartu nahi duenak Sara Korrikako lehendakariari jakinarazi beharko dio. Haurren lasterketan parte hartzeko, ordea, lehenagotik izena eman nahi dutenek Herriko Etxean egin beharko dute. Halere, egun berean ere apuntatzen ahalko da.



Kalakan taldea. KALAKAN.EUS

Kalakan taldeak hiru emanaldi eskainiko ditu abuztuaren lezeetan

TTIPI-TTAPA

Pierre Sangla, Xan Errotabehe eta Jamixel Bereau Euskal Herriko hiru perkusionista ezagunak berriz ere lezeetan izanen dira uda honetan. Aitzineko urteetako arrakasta ikusi ondotik, baina bertze lagun batzuek inguratuta, abuztuaren 21etik 23ra hiru emanaldi eskainiko dituzte.

Abuztuaren 21ean, hiru perkusionista Oihaneko Zuhaitan orkestrarekin ariko dira. Biharamunean, abuztuak 22, Maitane Sebastian biolontxelo-jotzaile iruñeararekin eskainiko du Kalakanek ema-

naldia. Finitzeko, abuztuaren 23an, Alexandre Arkhintcheev kantaria izanen dute kontzertuan lagun. Hiru egunetako emanaldiak 21:30ean hasiko dira.

Sarrerak salgai

Dagoeneko sarrerak salgai daudela jakinarazi dute lezeetatik eta www.grottesdesare.fr atarian eros daitezke. Hamalau urtetik goitiko gazteek eta helduek 18,70 euro ordaindu beharko dute kontzertu bakoitzera sartzeko eta bortz eta hamahiru urte bitartekoek, berriz, 13,20 euro.

Gisa guztietako ekitaldiak prestatu dituzte udako egunetarako

TTIPI-TTAPA

Udako egunetan, ez da ekitaldirik faltako herrian. Artea maite dutenek Larrungo Koloriak elkarteko kideen margolanak eta eskulanak ikusteko aukera dute Lur Berri Gelan. Abuztuaren 3a arte egonen dira hor, goizez eta arratsaldez, eta sartzea urrikir da.

Abesbatzen doinuek ere ez dute etenik izanen: abuztuaren 2an Atsulai ariko da, abuztuaren 9an Goraki, abuztuaren 16an Saiberri eta irailaren 4an Larrun Kanta. Guztiak elizan ariko dira kantari.



Pottoka lehiaketa. TURISMO BULEGOA

Horrez gain, abuztuaren 4an pottoka lehiaketa antolatu dute. 09:00etatik aitzinera behor eta behoka lehiaketa egingen dute eta animazioak ere ez da faltako frontoian.

Azkona eta Jauregi Euskal Herriko txapeldun esku huska

Lehen mailako finaleko bi bikoteak SPUC Pilotakoak ziren eta garaileek kintze bakar batez finala ederra irabazi dute

PIERRE BASTRES

Kanboko pilota plazan lau adiskide lehiatu ziren finalean: alde batetik, Pantxo Valentzia eta Xabi Berreterbide gan den urteko finalistak (Irisarriren aurka galdua zuten), eta bertze aldetik, Peio Azkona eta Amaiur Jauregi. Sasoia hasi baino lehen, nehork ez zuen usteko holako balentria erdie-tsiko zuela Senpereko SPUC kirol elkarteak. Are guttiago Peio Azkona, aurtengo txapeldunak: «Ni Milagrangakoa naiz, eta aurten arte han aritzen nintzen. Gan den urteko txapelgoan izigarri gaizki aritu nintzen eta gainerat ez zen bertze jokolaririk enekin binakako txapelgoa egiteko. Amaiur Jauregi ene Senpereko kusia ni bezalatsuko egoeran zen, eta Eskual herriko txapelgorako elgarrekin izen-emaitea deliberatu dugu; Senperen giro bikaina atzeman dut, entrenamenduak ongi antolatzen dituzte Txetx Etcheverrik eta Paxkal Harotzarenek, hamar jokolari gara elgarrekin trebatzeko eta ederki elgar aditzen dugu».

Txapeldun izaterako bidea nola den galdeginda, hona zer duen ihardesten Peiok: «bide goiti-beheititsua izan dugu alabainan! Denboraldia hirugarren mailan hasi dugu, eta bigarrenean upatu gara berehala lekua zelakotz. Ez jaustea genuelarik helburu, sasoia berean lehen mailara igaiteko parada izan dugu. Gero partidak bata bertzearen ondotik irabazi ditugu, finalat heltzeraino, Pantxo eta Xabiren kontra!». Finaleko puntu bakoitzaz oroitzen da Peio, eta xeheki: «partida berezia izan da laurendako: lehenik trebetzaile bera dugulako (Paxkal Harotzarene, SPUC Pilotako lehendakaria), honek erabaki du isilik egoitea, eta usaiako aholkuak ez genituen! Bigarrenik Kanboko pilota plaza ederra eta zabalak izanagatik ere, lurrezkoa da, ohiz kanpokoak zaigu, eta paretak ez du kaskorik. Aitzinetik hasi gara partidari, berdintze aintzekin. Gero ahulaldi luze bat izan dugu, Pantxo eta Xabi ezin hobeki aritzen zirelako, 27-20 nagusitzen zitzaizkigun».



Lehen mailako txapeldun eta txapeldunordeak, denak SPUCekoak. P. BASTRES



Partida ikusgarria eskaini zuten lau pilotariak. PIERRE BASTRES

Haatik tartea hasi gara jaten ohartu gabe, baina 29. kintzea egin dute, 29-27 haien alde. Burutua zela uste izan dut orduan, baina ez, hiru kintze bata bertzearen ondotik egin ditugu eta partida eraman dugu! Ondotik laurak, trebatzaile eta eta bertze senperrarekin elgarretaratu gara bazkaltzeko, besta handirik egin gabe». Sebastien Etcheberri Txetx SPUCeko lehendakarieta-

ko bat loriatua ageri zen: «baziren 41 urte Senpere ez zela txapeldun izan. Finala ikaragarria izan duk, maila izigarri gorakoa, pozik gaituk. Bi finalistak eta txapeldun gainerat, bertze lau bikote genituan maila guzietan. Gazteetan ere emaitza politak izan ditiagu eta nesketan nolaz ez aipa Oronoz eta Goienetxe, Frantziako txapeldunak izan dituk balinean 16 urtekoen mailan».

'Gure argi-hitz-kiak' eta 'Ostopeko Artea' erakusketak zabalduko ditu Hatsak

AUXTIN ZAMORA

Bertze behin, Hatsa elkarteak kideen eta beren lagunaren obra artistikoei zabaldua den erakusketa bat egituratu dute Amotz-Larraldean.

Oraingoan, aurtengo olerki bilduman parte hartu duten guzietan norberaren testutxo

bat lotu dute argazki artistiko batekin. Horrela, *Gure argi-hitz-kiak* tituluaren pean, ehun bat kuadro erakutsiak izanen dira guzieren izenekin, eta hori ez ohizko manera batean.

Bi ortzirez, oinezko ibilaldira egingen dute, abuztuaren 10ean Sarako Sualmendi-

ra eta 17an Santa Barbarara. Bi egun horiek irekiak izanen dira zerbait poetiko edo literarioa aurkeztu nahi dutenentzako. Harremanetan jaritzeko: olerkibilduma@sfr.fr.

Ostopeko Artea

Hatsa elkarteak, Urdazuri ibaian bizi diren sorkuntzalari guzietan (haurrak ere, nahi badute), gomitatzen ditu, dohainik, Amotz-Larraldean,

erakusketa batean parte hartzera. Abuztuaren 19tik 26a arte izanen da, 16:00etatik 20:00etara (pintura, idazlanak eta abar, nahi den guziaz).

Abuztuaren 19an, igandarekin, eguerdian, parte duten guzieren artean, bazkari bat egingen da, bakoitzak ekarri janariarekin. Izenak eman behar dira abuztuaren 15erako. Xehetasun gehiago: olerkibilduma@sfr.fr



Xanta Sousa eta Dani Saldias, txinga eramaten txapeldun. UTZITAKO ARGAZIAK

Txapel uzta dotorea ekarri dute herri kirolariek Iruñetik

Uztailaren 8tik 14ra eguerditan hainbat txapelketa jokatu eta erakustaldi eskaini dituzte Foruen Plazan

TTIPI-TTAPA IRUÑEA

Urtero bezala, Iruñeko Udalak antolatuta, San Fermin Herri Kirol Jaialdiak jokatu ziren eta urtero bezala, txapel uzta dotorea eskuratu dute eskualdeko herri-kirolariek.

Uztailaren 8an, Nafarroako bikotetako aizkora txapelketa irabazi zuten Iker Vicentek eta Zigako Joxean Etxeberriak, Jon Rekondo eta Ruben Saralegi leitzarrak eta Donato Larretxea aranztarra eta Julen Kañamares giblean utzita. Nafarroako gurdi altxatze txapelketa Xabier Urrutia arraioztarrak irabazi zuen.

Uztailaren 9an, Nafarroako lehen mailako arpana txapelketa jokatu zuten gizasemeek, eskualdeko ordezkariarik gabe. Nafarroako emakumezkoen arpana txapelketa, berriz, Aresoko Itxaso Onsalok eta Amasako Leire Astiasaranek irabazi zuten, Elsoko Ainhoa eta Maria Iraizoz gailenduta.

Uztailaren 10ean, Nafarroako gizonetzkoen eta emakumezkoen ingude altxatze txapelketa jokatu zuten eta hemen ere eskualdeko ordezkariak izan ziren txapeldun, Josetxo

Urrutia leitzarra (86 altxaldi) eta Maika Ariztegi iturendarra (96 altxaldi).

Hirugarren mailako aizkora kanporaketa

Uztailaren 11n, Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketaren kanporaketa jokatu zen. Segoviako El Espinar herriko Emilio Garcia izan zen bizkorrena bi kanaerdikoak moztzen (07:27). Berekin batera, Uhartte Arakilgo Iker Gorriti (08:21), Beintza-Labaiengo Jacinto Etxekonea (09:08), Uhartte Arakilgo Jaime Gorriti (09:32) eta Anozko Eneko Pagola (09:58) ariko dira abuztuaren 17an Ezkurran jokatuko den finalean. Irurritako Marc Duch finaletik kanpo gelditu zen.

Nafarroako kadete mailako arpana txapelketa ere jokatu zuten eta Baztango Basabu-

INGUDE- ETA HARRI-JASOTZE TXAPELAK LORTU DITU LEITZARRAK

ruko Iraitz Iturralde eta Jon Irigoien txapeldunorde izan ziren, Andra Mariko Pello Alzelai eta Adur Lizarragarem ondotik. Kimu mailako proba konbinatuan, Igantziko taldea nagusitu zitzaion Andra Mari, Berriozar eta Antsoaini.

Uztailaren 12an, ez zen txapelketa ofizialik jokatu, baina 4x4 sokatira torneo mistoan, 280 kiloz beheiti, Lesakako Beti Gazte nagusitu zen Berriozar, Araxes eta Antsoainen aitzinetik.

Emakumezkoen binakako aizkora erakustaldian, Itxaso Onsalok aresoarra eta Nerea Sorondo beraterra izan ziren bizkorrenak lau 45 ontzako enbor moztzen (09:36). Ondotik sailkatu ziren Leire Astiasaran gipuzkoarra eta Irati Astondoa bizkaitarra (11:33) eta Maika Ariztegi iturendarra eta Xanta Sousa lesakarra (11:47).

Uztailaren 13an, Nafarroako harri-jasotze txapelketa jokatu zuten Leitzako Josetxo Urrutiak eta Iruñeko Albaro Zugarrondok. Leitzarrak jantzi zuen txapela, denara 4.787,50 kilo altxatuz (125 kiloko zilindroari 18 altxaldi, 112,5 kiloko kubikoari 11 eta 100 kiloko bolari 13). Zugarrondok 4.225 kilo jaso zituen.

Uztailaren 14an, azkenik, Nafarroako gizonetzkoen eta emakumezkoen txinga txapelketak erabaki zituzten eta hemen ere bi txapelak eskualdera ekarri zituzten Arraiozko Dani Saldiasak eta Lesakako Xanta Sousak. Lesakarrak 20 plaza eta erdi eta 6,34 metro egin zituen. Bigarren Iruñeko Esti Gastearena izan zen (14 plaza eta 1,65 metro).

Gizonetan, arraioztarrak 10 plaza eta laurden eta 3 metro eginda jantzi zuen txapela. Beunzako Mikel Eugi izan zen bigarren (8 plaza eta 1,90 metro), Berriozarko Oskar Aguas hirugarren (7 plaza eta erdi eta 5,60 metro), Josetxo Urrutia leitzarra laugarren (5 plaza eta laurden) eta Iruñeko Alejandro Fernandez bosgarren.



Saralegi eta Vicente garaile iaz.

17. Ramon Latasa Saria Sunbillan eginen dute abuztuaren 11n

TTIPI-TTAPA SUNBILLA

Abuztuaren 11n, larunbatean, 19:00etatik aitzinera Ramon Latasaren omenezko sariketa jokatuko dute Sunbillako pilotalekuan hamazazpigarren aldiz. Historiak eman duen aizkolaririk onenetako bat izan zen Ramon Latasa, eta urtero bezala, hamar aizkolaririk onenetsuenak ariko dira haren oroimenezko lehiaketan, bortz bikotetan banatuak: Aitzol Atutxa eta Julen Alberdi *Txikia*; Donato Larretxea eta Iker Vicente; Mikel Larrañaga eta Ugaitz Mugertza; Joseba Otaegi eta Jon Rekondo eta Ruben Saralegi eta Xabier Orbegozo *Arria V.a*. Bikote bakoitzak hamar kanaerdiko eta sei 60 ontzako ebaki beharko ditu.

Ekitaldi berean, Nafarroako eta Gipuzkoako aizkolaririk berteranoen arteko lehia berezia ikusiko da. Alde batetik, Migel Mindegia eta Patxi Astibia eta bertetik, Angel Arrospide eta Jose Ignazio Orbegozo *Arria II.a* ariko dira, bakoitzak sei kanaerdiko moztuz.

Barakaldon bizi den Ousmane Drame senegaldarra munduko marka hobetzen ahaleginduko da 100 kiloko txingekin. Xanta Sousa lesakarrak ere marka ahalegina egiteko asmoa dauka jaialdian, 100 kiloko txingekin.

Ezkurra II.a eta Endika txapeldun izan dira Iruñean

Promesa mailako txapela Eloy eta Azpirozek jantzi dute, baina Koteto Ezkurra oraindik erregea dela nabarmen gelditu da

TTIPI-TTAPA

Lau txapeldun eta errege bat. Horixe utzi zuten uztailearen 12an Uharteko Euskal Jai berri pilotalekuan jokatu ziren sanferminetako erremonte txapelketako finalek. Maila nagusian, Josetxo Ezkurra II.a doneztebarrak eta Endika Urrutia saldiastarrak 40-29 irabazi zieten Aritz Juanenea saldiastarrari eta Barrenetxea IV.ari. Promesa mailan, Doneztebeko Eloy Garcia izan zen txapeldun, Azpirozekin bikote eginez. Baina erregea, oraindik Koteto Ezkurra dela nabarmen gelditu zen bere agurreko omenaldi hunkigarrian. Peñetako txarangak *Sigo siendo el rey* abesti mexikar ezaguna jo zioten, publikoak kantatzen zuen bitartean.

Omenaldia, final nagusia baino lehen egin zioten Koteto Ezkurrari, 1990ean debuta egin zuen Euskal pilotalekuan. Ilobak aureskua dantzatu zion eta Koteto Ezkurrak berak

bota zuen finaleko sakea erabakitzeko txapa. Iruñeko peñek ere hainbat opari eman zizkieten hunkitua ageri zen Koteto Ezkurrari.

Final nagusiari dagokionez, 18-16kora bitarte berdindua joan zen, baina hortik aitzinera errazago nagusitu ziren gorriak, Josetxo Ezkurra II.a eta Endika Urrutia. 21-17, 24-18, 30-21, 32-25 eta 36-28 irabazten joan ondotik 40-29 gailendu ziren azkenean. Endiak borts tanto egin zituen sakearekin eta sei piloteoan. Finaleko onena izan zen Saldiasako atzelaria. Ezkurra II.ak ere hamaborts tanto egin zituen eta Juaneneak hamaika.

Promesa mailan ere txapela Doneztebera ekarri zuen Eloy Garcia gazte hasi berriak. Azpirozekin bikote eginez 40-21 irabazi zieten Etxarri eta Martirenari. Azpiroz jaun eta jabe izan zen eta aldea ezarri zuen gibelean eta Eloy ere arras seguru ibili zen aitzinean.



Aureskua Koteto Ezkurrari eta bi mailetako txapeldunak. MAIALEN ANDRES

Handien finalaren zain, gaztetxo eta gazteen laxoa txapelketa ere abiatu da

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 21ean abiatu dira Laxoa Elkarteak antolatutako gazte eta gaztetxo laxoa txapelketak. Lau taldek eman dute izena gazteetan, Doneztebeko bik eta Irurita eta Oizko banak. Gaztetxoetan, berriz, zortzi talde ariko dira, Doneztebeko lau, Iruritako hiru eta Oizkoa. Bi txapelketetako finalak irailaren 15ean jokatu dituzte Oizko plazan.

Ligaxkako eta finalerdietako partidak zazpi jokoetara jokatuko dituzte eta finala bederatziko jokoetara. Ligaxkako sailkapenaren arabera, gazteetan finalerako zuenean sailkatuko dira bi lehenak. Gaztetxoetan mailan, berriz, bi multzotan banatuak ariko direnez, lehen multzoko lehenak bigarren multzoko bigarrenaren kontra eta alderantziz jokatuko dituzte finalerdiak.

Naroa Elizalde hirugarren I. Master Cup txapelketan

Lehen aldiz jokatu da emakumeen Sanferminetako Master Cup esku pilota txapelketa. Naroa Elizalde zubietarra, Arrate Bergararekin bikote eginez hirugarren izan zen. Finala eta hirugarren posturako lehia hau 900 ikusleren aitzinean jokatu zuten Iruñeko Labrit pilotalekuan uztailearen 14an. Olatz Arrizabalaga eta Maite Ruiz de Larramendi izan ziren txapeldun.

Bengoetxea VI.ak irabazi zuen lau eta erdiko txapelketa

Finalurrekoan Aimar Olaiola goizuetarra menperatu ondotik, sanferminetako lau eta erdiko pilota txapelketaren finala irabazi zuen Oinatz Bengoetxea leitzarrak San Fermin Egunean Labriten. 18-22 irabazi zion Jokin Altunari. Binakakoaren finalean ez zen eskualdeko pilotaririk izan. Ezkurdia eta Rezustak 22-16 irabazi zieten Irribarria eta Zabaletari.

AGENDA

UZTAILAK 26 - IRAILAK 6

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

IKASTAROAK

BERA

Autodefentsa ikastaroa

Beralandetan, uztailaren 28an,
10:00etatik 14:00etara.

Izen-ematea: 948 635036.

IKUSKIZUNAK

BERA

4x4 autoen ikuskizuna

Uztailaren 28an.

SARA

Bi orduko ikuskizuna

Pilota partidak, dantzak eta herri-kirolak.

Frontoian, uztailaren 31n,
20:00etan.

KIROLA

BERA

3x3 saskibalo txapelketa

Txapelketa herrikoia.

Toki Onan (euria ari badu kiroldegian), uztailaren 28an,
16:00etan.

3x3 saskibalo txapelketa

Elite mailakoak.

Toki Onan (euria ari badu kiroldegian), uztailaren 29an,
16:00etan.

Txirrindularitza proba

Uztailaren 29an.

Herri-kirolak

Uztailaren 29an.

SUNBILLA

Arretzeko bordako igoera

Abuztuaren 4an, 10:00etan.

IGANTZI

XXVIII. Mendi bizikleta zeharkaldia

Irailaren 2an, 10:00etan.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

URDAZUBI Burdin Eguna

Antzerkiaren ondotik zikiro jatea izanen dute.

Abuztuaren 11n, larunbatean.

KONTZERTUAK

BERA

Zozo

Katakun, uztailaren 27an,
23:00etan.

ARANTZA

Trini fox

Aterpean, uztailaren 27an,
22:30etan.

Patxuko naiz

Aterpean, abuztuaren 3an,
19:30etan.

Benat Igarabide

Aterpean, abuztuaren 10ean,
22:30etan.

Arantza Rock

Abuztuaren 25ean. Azken Trena, Kulto Kultibo, Bultz eta DJ Balber taldeen kontzertuak.

SARA

Atsulai Abesbatza

Elizan, abuztuaren 2an,
21:30etan.

Goraki Abesbatza

Elizan, abuztuaren 9an.

Saiberri Abesbatza

Elizan, abuztuaren 16an.

Kalakan taldea

Abuztuaren 21etik 23ra (hiru emanaldi eskainiko dituzte).
Sartzea: 18,70 euro.

Larrun kanta

Elizan, irailaren 4an.

ZUGARRAMURDI

Mara

Lezetan, abuztuaren 23an,
18:00etan.

LEITZA

Kepa Junkera

Irailaren 7an.

BESTAK

BERA

Herriko bestak

Uztailaren 28tik abuztuaren 6ra bitarte.

GAZTELU

Herriko bestak

Abuztuaren 2tik 5era bitarte.

BEINTZA-LABAIEN

Herriko bestak

Abuztuaren 3tik 6ra.

SUNBILLA

Herriko bestak

Abuztuaren 10etik 14ra.

ZIGA

Herriko bestak

Abuztuaren 9tik 13ra.

LEITZA

Herriko bestak

Abuztuaren 10etik 15era.

OSPAKIZUNAK

SARA

Pottoka feria

Frontoian, abuztuaren 4an.

Kontrabandisten Eguna

Abuztuaren 26an. Goizean merkatua, pottokan itzuliak, musika eta arratsaldean herri-kirolak lasterketak.

URDAZUBI

Burdin Eguna

Abuztuaren 11n.

AZOKAK

SARA

Artisauen azoka

Herriko plazan, uztailaren 2tik irailaren 10era bitarte, astelehenero, 09:00etan.

Ekoileen azoka

Plazan, ortziralero, 16:30etik 20:30era.

SENERPE

Artisauen azoka

Plazan, astearte goizero, 08:00etatik aitzinera.



UTZITAKO ARGAZKIA

IGANTZI Mendi bizikleta zeharkaldia

XXVIII. edizioa izanen da aurtengoa.
Irailaren 2an, 10:00etan.

ekoizleen azoka

Plazan, larunbatero, 08:00etatik aitzinera.

TAILERRAK

IGANTZI

Plisti-plasta Liburudategia

Aldizkariak eta liburuak, ipuinak, marrazkiak, eskulanak...
Igerilekuan, uztailean eta abuztuan, astelehenetik ortziratera, 17:30etik 19:30era.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO, ARIZKUN, ERRATZU Artearen ibilbidea

Margolanen, eskulturen, argazkien eta literatur lanen erakusketa.
Uda osoan (xehetasunak 714. zk.)

OIEREGI

Cigaren margo erakusketa

Arizkunengan, uztailearen 20tik abuztuaren 20ra bitarte, goizez

10:30etik 13:30era eta arratsaldez 16:00etatik 19:00etara.

BERA 7 begirada

Kultur etxean, uztailearen 27tik abuztuaren 19ra (asteartetik igandera, goiz eta arratsaldez).

IKASTAROAK

DONEZTEBE EGA ikastaroa

Presentziala edo on-line.
Abuztuaren 6tik 31ra, izen-ematea: abuztuaren 3ra arte zabalik.

LEHIAKETAK

LEITZALDEA-URUMEALDEA 'Zuk aukeratu, zuk dantza egin'


Festetan entzun nahi dituzten kantak aukeratzeko.
Uztailearen 31 arte bidal daitezke (xehetasunak 52.or.)

Nire aukera

«Errugbi taldeko giro onean, urte aunitzez segitu nahiko nuke»

JOSEBA ARIZMENDI ORONoz-MUGAIRIKO GAZTEA

«Saltsa guztietan egotea gustatzen zaion mutil arrunta» da Joseba Arizmendi. «Errugbia, ehiza eta besta» ditu zaletasun. Errugbian «duela zazpi urte» hasi zen, «taldeko kirolak» atentzioa deituta «probatzeko grina» asebetez. Ordutik, «bai kirola bera, bai eta taldeko giroa ere gustatuta», kirolean murgilduta dabil. Ibilbide horretan guztian, taldeko giroa ikusita, «inguruko gazte



UTZITAKO ARGAZKIA

eta ez horren gazteak» probatzera animatuko lituzke. Jokalari gisa hasi zuen ibilbidea baina egun entrenatzaile ere bada: «duela lauzpabortz urte hasi nintzen gaztetxoak entrenatzen eta arras gustura nago». Kirolzalea bezain bestazalea izaki, biak bateratzeko sekretua «kirola lehenik eta besta gero» egitea da Arizmendientzat: «adinean gaude eta aprobetxatu behar, gero etorriko dira

«ORAIN ARTEAN TXARANGA IZATEN GENUEN AURTEN ELEKTROTXARANGA PROBATUKO DUGU»

komeriak!» dio umorez. Laster izanen du herrian bertan horretarako tartea, «herritar guztiak biltzeko egunak dira bestak, eta zentzu horretan aberatsak dira niretzat». Bestaren gibelean dagoen lana ere barrutik ezagutzen du Oronoz-Mugairiko gazteak: «ahal den heinean esku bat botatzen dut». Normalean «muntaketa lanetan» aritza egokitzen bazaio ere, «urtez urte ardurak aldakorrek dira». Lana bera «herriko bestak izatearen ilusioak» arintzen dio. Antolatu ondotik, ezin denez etxean gelditu, momentu guztiak bizitzen saiatzen da. Baina, bereziki, «Gazte Eguneko giroa» gustatzen zaio. Gaztea izateari dagozkion ezaugarri guztiak betetzen dituela erran genezake: batetik, Gazte Eguna delako berea; eta bertetik, gaua maiteago duelako». Biharamunean, «mendira joan eta korrika ibiliz izerdia aterata» errekuperatuta sentitzen da. Eta horretarako txoko politak baditu herrian bertan. Atsedean hartzeko, ur freskoa edateko eta inguruaz gozatu bidenabar lasai egoteko «Azkazkorrn, mendiko paraje ederretan dagoen iturria» gustatzen zaio. Ez du aunitz gehiago eskatzen, ez eskatu beharrik ere «egunerokoan zorientsu bizi naiz, eta... asteburuetan are gehiago!».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitz prezio onean salgai. ☎ 948 451 337 / 667 275 013.

BERA. Legia, 19-1.C pisua salgai. 87 m², igogailuarekin eta trastelekuarekin. Berritua. 3 logela, armairu enpotratuak, bainugela, komuna, sukaldia eta jangela. ☎ 636 674116.

LESAKA. Bifamiliarra salgai. Bortz logela, hiru komun, sukalde eta egongela haundiak, garaje haundia eta lorategia. Prezio negoziagarria. ☎ 618 188300.

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Itzea karrikan, apartamentua errentan emateko. ☎ 609 973306

KONPARTITZEKO

BERA. Logela errentan emateko. Etxea konpletoa da. ☎ 631 902318 (Jose).

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Correos azpian 80x22 metroko garajea salgai. ☎ 620 973349.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

SUNBILLA. 25.000m²ko lursaila salgai. Nekazaritzako tresnertzako txabola egiteko aukerarekin, 9.000 euro. ☎ 698 511525 (Jose Mari).

DONAMARIA. 1.400m²ko lursaila salgai. Nekazaritzako tresnertzako txabola egiteko aukerarekin, 7.000 euro. ☎ 693 694976.

BERTIZARANA. 28.000m²ko lursaila duen borda salgai. Etxebizitza eraikitze baimena, ibilgailuentzako sarrera, ura eta argiarekin. ☎ 648 851393.

LANA

ESKAINITZAK

LESAKA. Batzokian, lanean aritzeko norbait behar dute: sukaldean, ostatuan... aritzeko. ☎ 695 669831.

LESAKA. Kafetegi batean egun osoan lan egiteko lagun bat, edo egun erdiz lan egiteko bi lagun behar dira. ☎ 620 700964 / 661 845053.

BERA. Auzoa ostatuan langileak behar dituzte, interesatuak jarri harremanetan Whatsapp bidez. ☎ 657 472020.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatekxan zerbitzaria behar dute udan lan egiteko, 10:00etatik 18:00tara. Frantse sa pixka bat jakitea beharrezkoa da. ☎ 948 599146 / 948 599009.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

DONEZTEBE. Supermerkatu batean almazenean lanean egoteko pertsona bat behar dute. Interesatuak bidali curriculum: supermerkatua@hotmail.com.

ELIZONDO. Beatriz Ongizate Zentroan langile bat behar dute egun erdiz lanean aritzeko. Estetika gaiez jakitea beharrezkoa da. ☎ 948 580283 / 636 142890 (Whatsapez).

LESAKA. Antoiu ostatuan, zerbitzaria behar dute larunbat eta igandetan lan egiteko. ☎ 627 877281 / 948 630087.

ESKARIAK

Esperientzia duen emakumea lan bila, eskualdean orduka adinekoak edota haurrak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota etxeko lanak egiteko. ☎ 644 778212.

BORTZIRIAK. Emakumezko bat as-telehenetik ortziralera goizez aritzeko lan bila. Auto propioarekin. Garbiketari, adinekoak zaintzen, animaliak zaintzen... ariko litzateke. Adinekoak zaintzen esperientziaduna eta etxeko etxeko geriatriko tituluduna. ☎ 682 154668.

Adindua interna edo orduka zaintzeko lan bila, haurren zaintzan edo garbiketari lan egiteko prest. Sukaldari laguntzaile bezala ezagutzak. Disponibilitate osoa. ☎ 694 420310.

50 urteko emakumea interna bezala adinekoak zaintzeko lan bila. Bi urteko esperientzia interna moduan lanean, erreferentziarekin. Disponibilitate osoa. ☎ 722 237313.

Pertsona adindua (interna edo orduka) edo haurrak zaintzeko edota ostalaritzan zerbitzari bezala aritzeko lan bila. Adinduen zainketa eta os-

talaritzan zerbitzari bezala esperientziaduna. Alzheimer eta lehen sorospenen inguruko ikastaroak eginak. Disponibilitate osoa. ☎ 644 860944.

ZERBITZUAK

DENETARIK

ITUREN. Lorategiak zaindu eta kimaketa lanak egiten ditut. ☎ 617 629730 (Juan).

SALEROSKETAK

Benelli markako **eskopeta** salgai, hagitz arina eta hagitz egoera onean. ☎ 677 592133.

ANIMALIAK

SALGAI

Lau urteko **zezen** limusina salgai, kartaduna. Bi **behi mestizo** ere salgai. ☎ 943 683060.



Setter arrazako zakurkumeak salgai. Ama eta atxa ehiztari onak. ☎ 607 217637.

MOTORRAK

TAILERRAK

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT

17.500€

RENAULT MEGANE ZEN DCI 110 CV
Nabigatzailea, argi pertsonalizatuak, 6 marba...

18.600€

DACIA DUSTER CONFORT DCI 110 CV 4X4
Nabigatzailea, 6 marba, apark. radarra kamararekin
Biak sustapen finantzieroei lotuak

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,32
- 1.koa 4,10
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,34
- 1.koa 4,20
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 160,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 185,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,70/7,30
- 8-10 kilokoak: 5,60/6,40

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 46 €

Zerri gizona 1,240 €

Zerramak 0,550€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (uztailaren 6tik 13ra bitarteko prezioak)



744 484 361

ttipi-ttapa

ETXALAR

USATEGIEN ENKANTEA 2018

Udal honek enkante irekia eginen du aurtengo ehizaldirako larmendiko barrutian dauden usategiak errentan jartzeko.

Enkantea Herriko Etxean eginen da **2018ko irailaren 8an, goizeko 12:00etan**, ahozko eskaintzen bidez.

Baldintzak udal idazkari-tzan daude interesaturik daudenen eskura, baita udalaren web orrian ere (www.etxalar.eus).

Etxalar, 2018.07.05
Alkatea,
Miguel M^o Irigoien
Sanzberro

KATEA BIKE **2. eskuko bizikletak**

800€

500€

400€

Kanttonberri, 1 | BERA
 T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

KONTATU KONTUAK



Larun eztabaidaren erdian. Iragarri bezala, Larun eraberritzeko proiektuaren kontra, Larrun Ez Hunki kolektiboak mobilizazioekin segitzen du Sarako San Inazio lepoan. Uztailaren 13ko goizean, ordea, trenbideetako langileak ere bildu ziren protestara. Diruaren erabilera txarra eta zerbitzu publikoaren galtzea salatzeaz gain, Larhun 2020 proiektuaren kontra agertu ziren. Eguerdian, berriz, Sarako plazan bildu ziren, tenore horretan, Jean Jacques Laserre Pirinio Atlantikoetako Departamentuko lehendakaria eta hainbat hautetsi Saran baitziren, Sarako Olhain Larrun gela estreinatzen.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak gure webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki hauek guztiak Interneten: <https://erran.eus/merkatu-ttikia>
 Informazio gehiagorako: info@ttipi.eus / 948 635 458.

Kontatu, kontatu!

Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidalguzu argazkia! Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppez 744 484361 zenbakira.

LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probexitu aukerak!

<p>Aritzela DEKORAZIO TALERRA</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Industrialdea-Suizpi, 3 LEITZA T. 948 61 06 11</p>	<p>edr igunea</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik</p> <p>Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73</p>	<p>E ETXE TRESNAK S.L</p> <p>%10 DESKONTUA koltxoi, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik</p> <p>Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08</p>	<p>FISIOETXEA Ane Egazabal Ullata Fisioterapeuta</p> <p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Uharte Gotzaia, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30</p>	<p>Garbi drogeria - lurrindegia</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Huarte Gotzaia, 19 LEITZA T. 948 51 01 73</p>
<p>gatzelu scl iturgintza</p> <p>%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan</p> <p>Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86</p>	<p>MERNANDORENA</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55</p>	<p>KAPRITXO</p> <p>%5 DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p>Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>	<p>KU-ETXEA</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Uharte Gotzaia, 1- beheia 4 LEITZA T. 948 51 36 20</p>	<p>OGI BERRI Leizta Katetegi Okindegia</p> <p>%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren LEITZA T. 948 51 09 74</p>
<p>LEITZANIROLAK</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76</p>	<p>MAIMUR</p> <p>%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan</p> <p>Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46</p>	<p>Olaia Bazar</p> <p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37</p>	<p>ttipi-ttapa</p> <p>%10 DESKONTUA esketetan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58</p>	<p>Leizta</p> <p>%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20</p>

HERIOTZAK

- **Marie Raymonde Leizagoien,**
Sarakoa, ekainaren 27an, 87 urte zituela.
- **Jose Urrutia Grajirena,**
Saldiaskoa, uztailaren 8an, 97 urte zituela.
- **Bernardino Legasa Apeztegia,**
Igantzikoa, uztailaren 9an, 89 urte zituela.
- **Juan Jose Bergara Larretxea,**
Arantzakoa, uztailaren 9an, 67 urte zituela.
- **M^a Josefa Rivas Huarte,**
Arraiozkoa, uztailaren 13an, 75 urte zituela.
- **Kontxita Iturralde Maritorea,**
Berroetakoa, uztailaren 13an, 84 urte zituela.
- **Maria Josefa Zenotz Apeztegia,**
Elizondokoa, uztailaren 15ean, 96 urte zituela.
- **Jose Eskiroz Eraso,**
Aresokoa, uztailaren 15ean, 84 urte zituela.
- **Josefa Ignacia Otaegi Sarasola,**
Aresokoa, uztailaren 15ean, 80 urte zituela.
- **Cristobal Erasun Elizalde,**
Urdazubikoa, uztailaren 17an, 94 urte zituela.

BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN
Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

T. 948 05 90 90
izarratanatorio.com

BB
BAZTAN
BIDASOA
Ehorzketa Zerbitzusk

BAZTAN:
ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK:
BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA:
DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

web: funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

URTEURRENA

Maite AROZARENA BENGOTXEA

IV. urtemuga

Iritsi da laugarren urtea, zure irrifar eta indar paregabeak, ematen digu aurrera jarraitzeko balorea, horrela izanik zure xedea, erakutsi zenigun guziari eskerrak ematea, bertzerik ez zaigu gelditzen amatxo maitea, betiko gure bihotz eta pentsamenduen barnean, egonen zara zeruko izarrik dizdiratsuen.



ZURE FAMILIA

Bere aldeko mezak uztailaren 28an (Urdazubin) eta 29an (Amaiurren) eginen dira.

OROIGARRIA

Jose URRUTIA GRAGIRENA

Saldiasen, 2018ko uztailaren 8an, 97 urte zituela

Huts handia utziz joan zara gure atautxi maitea, beti gogoan izango dugu zure indar ta irribarrea. Aurrerantzean zeruan dugu izar berri bat zurea, dizdir zuri eginez gauero argituz gure bidea.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Inazio URRA ZARKETA

Lesakan hil zen, 2018ko uztailaren 3an, 66 urte zituela

Irribarrea, umore ona eta eskuzabaltasuna zenituen beti zurekin. Eskerrik asko gure bizian egoteagatik eta zuen etxean etxeok hartzeagatik. Beti gure bihotzetan egonen zara.



IRIBURUTAKO FAMILIA

IRACHE
tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

URTEBETETZEAK



Amaiurko **Xana Mujika Elizalde** abuztuaren 16an 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat etxeko sorgintxoari familia guztiaren alde eta batez ere Goren anaiatxoaren partetik!!



Unblenble, unblenble!
Kopa hori, kopa hori!
Sirriaska, sirriaska!
Altxa kopa hori, altxa kopa hori! lup!!!
Uztailaren 31n, 6 urte haundi beteko dituen Arantzako **Iker Alzuriren** alde! Muxu haundi bat!



Berako **Tiane Larretxea De Mateo** 15 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Aunitz urtez etxekoen partetik. Muxu potolo bat!




Ane Berasain Goiak 21 urte beteko ditu uztailaren 25ean. Aunitz urtez etxekoen partetik!



Sunbillako **Ibai Petrarena Gorosterrazuk** 8 urte beteko ditu abuztuaren 9an. Aunitz aunitz urtez atautxi-amatxi, izeba-osaba, Iraide eta Garaine lehengusinen eta nola ez, ama eta zure anaixo Anderren partetik. Zorionak eta bederatz mila muxu.




Ainara Barberena Gamiori: aunditz urtez sorgintxo! Merendu goxo-goxoa prestatu amatxo eta bien urtebetetzea ospatzeko. Hiru muxu handi-handi Berroetatik!



Arantzako **Aroa, Ekaitz** eta beraien atxa **Iñakik** uztailaren 19an 5 urte, 20an 3 eta 26an 37 urte bete dituzte. Aunitz urtez eta muso haundi bana amatxo eta familia guziaren partetik.



Ainara Legazkuek 2 urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak printzesa Berako atautxi eta amatxiren partetik. Muxu potolo bat!



Aner Errandonea Legazkuek uztailaren 24an 6 urte beteko ditu. Zorionak gure gizon haundiari Berako atautxi eta amatxiren partetik. Muxu potolo bat!



Aunitz urtez **Xuban!** Gure etxeko mononok 3 urte beteko ditu uztailaren 29an. Hiru muxu haundi Azpeitiko eta Arantzako familiaren partetik, eta bereziki Intzaren partetik.



Auza Iparragirre Iturzaetak urteak beteko ditu uztailaren 31n!!! Ongi-ongi ospatuuuuuu! Muxu haundi bat etxekoen partetik!! Aupa BKT!!



Arantzako **Larraitz Goñi Aranguren**ek 4 urte beteko ditu abuztuaren 23an. Aunitz urtez gure *mariperxenta*. Muxu haundi bat Arantzako eta Lesakako familiaren partetik.



Igantziako **Ainara Hita Aranguren**ek 3 urte beteko ditu abuztuaren 23an. Sorgintxo, prestatu berendu goxoa!! Muxu haundi bat familiaren partetik, baina batez ere Olaia ahizparen partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPA aldizkarian eta erran.eus atarian!

Internetez

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean, baita hurrengo aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitetz TTIPI-TTAPAREN bulegora

edo bidali argazkia eta testua gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan (ttikia 5 € edo handia 10 €)
- (2) Hegoaldetik postaz 0,55 €ko 10 edo 20 seilu.
- (3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekoa.
- (4) erran.eus bitartez.

SORTZEAK

- **Xan Goienetxe**, Sarakoa, maiatzaren 16an.
- **Milia Goienetxe**, Sarakoa, maiatzaren 16an.
- **Elen Rubio**, Sarakoa, ekainaren 14an.
- **Louca Goia**, Sarakoa, ekainaren 26an.
- **Markel Apeztegia Arretxea**, Sunbillakoa, uztailaren 14an.
- **Illargi Perez Mutuberrria**, Narbartekoa, ekainaren 30ean

EZKONTZAK


- **Kemen Dagerre** eta **Laetitia Gabriele**, Sarakoak, ekainaren 30ean Saran.

PLAZAN BAZAN




DADOA

Irudi hau ebaki eta tolestu,
eta dado polit bat aterako zaizu.
Baina bost dado hauetatik
hiru besterik ez dira zuzenak.
Zeintzuk?




Egilea: Garbine Ubeda (Aiuurri)



SUDOKUA

Bete itzazu laukitxo zuriak
ELTXOA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz
(E, L, T, X, O eta A).
Kontuan hartu hizki bakoitzak
behin agertu behar duela
lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



ZAZPI EZ, HAMAZAZPI!!

Aurki itzazu bi irudion
arteko aldeak.
Hamazazpi dira guztira.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
[www.PlazanBazan.eus/
kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

714

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

- Baztan Abentura Park - 2 tiket**
Ibai Elizalde Eskudero | LEITZA
- Astizko lezeak - 2 sarrera**
Maribi Elizalde Amigorena | ITUREN
- Donostiako aquariuma - 2 sarrera**
Consolación Zubiri Iribarren | AZPILKUETA
- Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**
Marisol Galain Matxinena | IRAIZOZ
- Buatxabal - Kamiseta bat**
Ana Isabel Iriarte Retegi | BERA
- La Rhune - 2 sarrera**
Pili Arrijuria Mikelarena | ELIZONDO
- Wow Park - 2 sarrera**
M^o Asun Olagarai Etxarte | ETXALAR
- Ibaizabal - Liburu bat**
Ainhoa Arraztoa Etxenike | DONEZTEBE
- Ibaizabal - Liburu bat**
Jabier Caballero Otaegi | ARESO
- Ibaizabal - Liburu bat**
Kontxita Irungarai Bikondoa | ERRATZU

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

2 sarrera



ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA



Wow park
08 21 932 400
Votre Parc Aventure

2 sarrera
WOW PARK
<http://wowpark.fr>

LI BU RU AK



- Beti iparralderantz
- Nuvolari plaza

erein
argitaletxea
www.erein.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.ttarttalo.eus



www.eurekamuseoa.es